

## 6. Antzinatea: akitaniera eta Erroma aurreko hizkuntz egoera

1. Antzinatea eta Erroma aurreko hizkuntz egoera.— 2. Akitaniera zer den.— 3. Ondorio linguistikoak

Akitanierarekin euskararen protohistorian sartzen gara. Garai honetan jasotzen ditugu euskararen historiako lehendabiziko lekukotasunak; hala eta guztiz ere, urri baino urriagoak dira, ez nahi genukeen bezain zehatzak eta, gainera, hizkuntz lekukotasunak denak ere zeharkakoak dira, erromatar garaiko latinezko idatzi eta idazkUNETAN agertzen diren pertsona, jainko eta leku izenak baino ez.

Gazi-gezia da, beraz, akitaniar garaia euskararen historialariarentzat. Alde batetik, lekukotasunek ezinutzizko laguntza ematen diote zenbait gertakari historiko eta are linguistiko ere agerian jartzen dituzten heinean. Bestetik, ordea, orduko hizkuntzaz eta hizkuntzaren egoeraz jakin nahi genukeena baino anitzez gutxiago eskaintzen digute. Eta, azkenik, informazioaren urritasunak berak bide eman die elkarren aurkako iritziei eta are espekulazio hutsei ere.

Gure eginkizuna datuak ondo ezagutzea, eta datuon interpretazioak neurtzea izango da, noski. Lehenik erromatar garaiko hizkuntz egoeraz zer dakigun ikusiko dugu, akitaniera ulertzeko ezinbestekoak diren Erromako historiari buruzko zenbait datuekin batera (§ 1). Bigarrenik, akitaniera zer den eta euskararen historiarentzat zein esangura duen azalduko dugu (§ 2). Azkenik, lekukotasun horietatik zein ondorio linguistiko atera diren, hizkuntza hura noraino ezagutzen dugun ikusiko dugu (§ 3).

## 1. Antzinatea eta Erroma aurreko hizkuntz egoera

### 1.1. Antzinatean kokatzen

Mesopotamian (gaur Iran denaren hegoaldean) sumeriera Brontze Aroan idazten hasi bazen ere, K.a. 31. mendean (K.a. 3200 urtearen bueltan), ez dago gure lurraldeari buruzko berririk gure aroaren atariko mendeak arte, Europako lurralde eta jende gehien-gehienei gertatzen zaien bezalaxe, idazkera luzaz Mediterraneoko bazterrik bazter hedatu baitzen, barruko aldeko jendeetara heldu gabe.

Bitartean, indoeuroparrak hedatuz joan ziren Europan barrena, eta azkenik mendebalderantz ere urreratu ziren, I. Burdina gaiaran (K.a. IX-V. mn.), Penintsulara VIII-VII. mendeen inguruan heldurik. Ondoren zeltarrak etorri ziren II. Burdina garaian eta inguratu zituzten aitzineuskaldun haiek: galiarrak iparraldean zituzten K.a. V. mendetik edo, eta zeltiberiarrak mendebaldean eta hegoaldean K.a. IV-III. mendeetatik. Gure parajeetara iritsi zen azken olatu indoeuroparra erromatarrena izan zen (K.a. II. mendetik aurrera). Orduantxe hasi zen Historia Euskal Herriarentzat eta baita Protohistoria ere euskararentzat.

### 1.2. Erromako Inperioa Euskal Herrian

Erromatarren konkista (K.a. II-I. mn.) ez zen garai berean, ezta modu berean ere gertatu leku guztietan. Hasteko, alde batetik heldu ziren eurek Hispania deitzen zutenera, eta bestetik Galia deitzen zutenera.

Hispaniako aldetik K.a. II. mendean hurbildu ziren baskoien lurraldeetara, Ebro ibaian gora nagusiki, baina orduko iturrien arabera zeltiberiarrak izan ziren erromatarren kezka nagusia, kontra latza egin baitzieten (cf. Numantziako setioa).<sup>1</sup> Baskoiak iturri erromatarretan agertzen direnean, ostera, edo neutral edo aliatu gisa aipatzen dituzte, akitaniarrek eta kantabriarrak ez bezala: Sertorioren Gerraren testuinguruan agertzen dira, 82-72. urteen artean, Ponpeioren alde jarriak, eta lehentxeago Áscoli-ko brontze ospetsuan (K.a. 89. urtea).<sup>2</sup> Ondoriozta daiteke guduen bidez izan beharrean hitzarmenen bidez bideratu zirela baskoien eta erromatarren arteko harremanak.

Hiriak izanik Erromako agintea finkatu izanaren seinale handiena, gogoan hartzekoa da baskoien lurretan Gracchuris (gaurko Alfaro, Errioxa) K.a. 179. urtean izan zela sortua, eta Pompaelo (gaurko Iruñea) K.a. 75-74. urtean, Ponpeioren omenezko izena daramana, hain zuzen ere.

Dударik gabe, erromatartzea aski handia izan zen lur zelaietan (Ebroko harana), baina mugatuagoa dirudi iparralderago, non erromatarren aztarnak meatzeekin (Arditurri, Somorrostro), itsasportuekin (Oiasso) eta galtzadekin (San Adriango tunela) lotuta agertzen diren.<sup>3</sup> Gainerakoan, lurraldea ez bide zen bestela oso garrantzizkoa, Inperioaren bazter batean kokatua eta ikuspegi ekonomikotik nahiko antzua izanik, ezpada Hispaniako iparraldea Galiako hego-mendebaldearekin lotzeko eta Oiassoko portutik salgaiak barruko aldera sartzeko. Honegatik bi galtzada handik zeharkatzen zuten gaurko Hego Euskal Herria: bata, Asturica Augusta (Astorga, León) eta Burdigala (Bordele, Akitania) lotzen zituen; bestea, Tarraco-tik (Tarragona) abiatuz, Ilerda-n (Lérida) eta Osca-n (Huesca) zehar zetorrena; hau dela eta, gogoan izan behar dugu bidaiariak ostatatzeko tarteka “geltokiak” edo “ostatuak” ere (lat. *villa*) bazeudela, bai eta behar izanez gero galtzaden ziurtasuna bermatzeko erromatar ejerzituaren destakamentuak ere:

---

<sup>1</sup> Numantzia ospetsua da Erromako Inperioak Iberian izan zituen Gerra Zeltiberiarrak direlakoengatik. K.a. 153. urtean izan zuen Erromarekiko lehen arazo larria. Hogei urteko liskarren ondoren, K.a. 133. urtean Erromako Senatuak Eszipion Emilianori Numantzia suntsitzeko agindua eman zion. Honek hiria sitiatu zuen bederatzik kilometroko hesi batekin. Hamahiru hilabeteren ondoren, numantziarrek hiria erre zuten, nahiago izan baitzuten aske hil, esklabo bizi baino (ingelesezko *Wikipedia*-tik nik egokitua).

<sup>2</sup> Áscolico brontzea brontzezko xafla idatzi bat da. Gerra Sozialean (91-88 a.C) matxinatutako italikoiei aurre egiteko, Pompeio Estrabon kontsul erromatarrek *Turma Salluitana* izeneko zalditeria bildu zuen (*turma*-ren izena Salduie hiriarekin dagoke lotua, gero Caesar Augusta (Zaragoza) izango zenarekin, alegia). Xaflak omentzen ditu Áscoli (Italia) konkistatzen lagundu izanagatik erromatar hiritartasuna lortu zuten *turma*-ko zaldunak eta haien izenak aipatzen: iberiarrak omen dira hein handi batean, baina haietako batzuk baskoiak (Segia hirikoak, gaurko Ejea de los Caballeros): ELANDVS ENNEGES F., AGIRNES BENNABELS F., ARRANES ARBISCAR F., eta beste sei gehiago. F. = FILIUS ‘semea’ izanik, “norberaren izena + aitaren izena” egitura omen dute izen-deiturok.

<sup>3</sup> Duela gutxi arte *Saltus Vasconum* “baskoien mendiak edo basoak” eta *Ager Vasconum* “baskoien zelaiak edo landak” oposaketa erabiltzen zen erromatartzean leudekeen ezberdintasunak azaltzeko, Caro Barojaren (1971: I, 42) hipotesiaren arabera. Alabaina, azkenotan ondo frogatuta gelditu da hipotesiaren ahultasuna, hala alderdi arkeologikoan nola iturrien interpretazioari dagokionez. Eztabaida honen laburpen on baterako, ikus <<http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee120795/141856>>.



Galia partean beranduago sartu ziren Akitania izena eman zioten lurraldean: honen ekialdea K.a. 110-106. urteen bueltan hartu zuten, eta gainerakoa K.a. 56. urtean, Julio Zesarrek Galia osoa konkistatzearekin bat. Akitania, ekialderago eta erromatartuagoa izan zen: mendebaldean, antza denez, galtzadek eta euren zerbitzura ipinitako *villa* edo destakamentuek baino ez zuten iragarriko erromatarren agintea eta eragina.

Erromako Goi-Inperioan (K.a. 31 – K.o. 284), Augusto enperadoreak Hispaniako antolaketa administratiboa ezarri zuen Kantauriko gerrak amaitutakoan (K.a. 19. urtean). Gaurko Euskal Herria orduko *Tarraconense* probintziaren barruan zegoelarik, bi *komentutan* izan zen banatua: alde batetik, komentu *zesaraugustarra* (Zaragoza hiriburu), zeinaren barruan beroiak eta baskoiak sartu ziren eta, lurraldearen aldetik Nafarroa, Aragoiko Cinco Villas eta *Oiasson* (Irun); bestetik, komentu *kluniarra* (Clunia hiriburu, Burgosen), autrigoiak, karistiarrak eta barduliarrak barne harturik.

Denborarekin Erromako inperioaren gainbehera etorri zen, K.o. III. mendean, Behe Inperioan. Hirietan oinarritutako sistema krisian sartu, hiriak jendez hustu eta ekonomia tokiko edo eskualdeko ekoizpena mugatu zen.

IV. mendean halako loraldi bat ezagutu zuen Inperioak, latifundioetan eraikitako *villa* aberatsetan oinarritua. Gainerakoan, leku askotan jende xehea haitzulo eta harpeetara bizitzen itzuli zelako aztarnak agertu dira.

V. mendean kristautasuna hona iritsi zelako lehen lekukotasun arkeologikoak agertzen dira, Teodosio enperadoreak erlijio ofizial bihurtu (308. urtean) eta nahiko beranduago. Mende honetan berean gertatu ziren “barbaroen” inbasioak hemendik, zehazki alano, bandalo eta suebiarrena (406. urtean). “Barbaroak” batzuetan Erromako enperadoreek laguntza eske deituta sartu ziren Inperioan, baina gero eta sarriago Inperioan barrena euren kasa eta gogora ibiltzen ziren. 418. urtean bisigodoak Garonako eskualdean kokatu ziren, eta ondoren frankoek bota eta Hispaniara joan ziren. Frankoen erreinua Galian eratu, Hispanian bisigodoen Toledoko erreinua eratu eta Euskal Herriko Erdi Aroan sartzen gara.

Garai erromatarrean zehar lekuan lekuko hizkuntzak desagertuz joan ziren latinaren mesedetan, eta latin hori denborarekin aldatuz eta zatituz joan zen, erromantzei hasiera emanik K.o. V-X. mendeen artean. Tours-ko elizbatarrean (813. urtean) bildutako elizkargudunek aitortzen dute eliztarrek dagoeneko ezin zutela

apaizen latina ulertu, eta agindu zuten *rustica romana lingua*-ra itzul zitzatela euren sermoiak, hots, tokian tokiko erromantzera.

### 1.3. Tribuak

Erromatarrek, aurreko indoeuroparrek ez bezala, aurkitu zituzten herri eta hizkuntzen lehen berri zuzen eta zeharkakoak bildu zituzten. Alabaina, gureaz bestelako ikuspegi eta interesak zituztenez, ez zuten guk nahi dugun beste informazio bildu, ezta nahi bezain zehatza ere. Izan ere, hainbat “tribu” edo herri izen erabili zituzten, baina izenak erromatarrek asmatuak edo (ondo zein txarto) inferituak dira, ez nahitaez herri horiek euren buruari ematen zioten izenak, eta maiz ez dakigu noraino diren fidagarriak. Adibide on bat da *vascones* izena bera (nondik *vascuence*, *vascongados*, *basques...*), euskaraz lekukotu gabea, euskararen bitartez orain artean azaldu ezina eta, beraz, agian jatorriz euskal izena ez dena.

Gure arazoan beste iturri bat “tribuak” eurak eta euren izaera ere badira, zeren eta izen mordoxka bat baitakarte iturri erromatarrek, baina ez zehazki haien estatusa zein zen, ezta haien arteko erlazioa ere; alegia, ez dago garbi, berriro ere, noraino fida gaitzkeen erromatar iturriez, hemengo kontuak urrundik eta maiz bigarren eskutik aipatzen baitituzte. Nolanahi ere, horrek kontraste handia egiten du akitaniarrekin, non nahiz eta tribu edo jende ezberdin askotxo aipatzen dituzten,<sup>4</sup> denak ere “akitaniar” izen orokorraren azpian bilduak agertzen zaizkigun, nolabaiteko batasuna bazutela adierazirik. Dena dela, errepara diezaiogun hurrengo mapari,<sup>5</sup> non berdez margotu baitira tribu horien balizko eremuak Hispanian:



<sup>4</sup> Erroma garaian (eta latinez emanda) honako tribu hauek aipatu ziren lurralde zabal hartako biztanleen artean (zerrenda euskal *Wikipedia*-tik hartua, s.v. *Akitania*; parentesi artean nongoak ziren aipatu dugu, eta igar daiteke izenak batzuetan gaur arte iraun duela bertako leku-izenean): *ausci* (Auch), *tarusates* (Tartas), *tarbelii* (Akize), *sibuzates* (Saubusse), *benearnenses* (Biarno), *bigerriones* (Tarbe), *elusates* (Eauze), *boates* (Bordele), *garites* (Garona), *onessii* (Louchon), *convenae* (Saint-Bertrand-de-Commingues), *consorani* (Couserans), *tarusci* (Ariège), *aturienses* (Aire), *vasates* (Basadois), *sotiates* (Soz), *cocosates* (Cocosa), *lactorales* (Lectoure) eta *tolosates* (Tolosa).

<sup>5</sup> “Iberia 300BC-en” by Alcides Pinto - Based on the map done by Portuguese Archeologist Luís Fraga, from the “Campo Arqueológico de Tavira”. (...) Licensed under GFDL via Commons - [https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Iberia\\_300BC-en.svg#/media/File:Iberia\\_300BC-en.svg](https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Iberia_300BC-en.svg#/media/File:Iberia_300BC-en.svg)”.

Erromatar garaiko tribu edo herri horietan garrantzizkoena BASKOIAK ziren (latinezko *gens Vasconum*-etik; nom. *vasco*, gen. pl. *vasconum*). Erromatarrak heltzerakoan euren lurraldea Ebro ibaiaren goi ibilguaren eta mendebaldeko Pirinioetako hegoaldeko arroaren artean kokatua zen, hau da, gaurko Nafarroa, Aragoiko mendebalde eta Errioxako ipar-ekialdean.

Baskoien mendebaldean barduliarrak, karistiarrak eta autrigoiak zeuden. BARDULIARRAK (lat. *varduli*, nom. pl.) baskoien lurren mendebaldean hasi eta Deba ibairaino kokatuak ziren. KARISTIARRAK (lat. *caristii*, nom. pl.) Deba ibaiaren mendebaldean hasi eta Nerbioi ibairaino. AUTRIGOIAK kantabriar eta karistiar tribuen artean, gaur egungo Kantabriako ekialdean, Burgosko ipar-ekialdean, Enkarterrietan, Errioxako ipar-mendebaldeko muturrean eta Arabako mendebaldean.

Ekialderago, baskoien mugaide, IAKATARRAK (lat. *iacetani*) aipatu behar dira. Iaka hiriburua izanik, Estrabonen arabera Pirinioetatik Lleida eta Huescaraino hedatzen ziren. Txanponak jaulkitzen zituzten IACA idazkunarekin. Estrabonen arabera beren buruaren jabe ziren, baina Ptolomeok baskoitzat ematen ditu. Ekialderago oraindik ILERGETEAK zeuden, Urgell Beheretik Ebroraino, gaurko Huesca eta Lleida probintzietan.

Herriez jardun ondoren, bi galderari erantzun behar diegu: lehenik, aitzineuskararekin zein hizkuntza zeuden ukipenean garai hartan? Bigarrenik, haietatik zein ziren aitzineuskararen hiztunak? Goazen poliki-poliki ziurtasunetatik hipotesietara.

#### 1.4. Inguruko hizkuntzak

Ez ditugu erraz lekukotzen orduko hizkuntzak zuzenean, baizik eta idazle klasikoek emandako berrien bitartez eta haietako batzuek utzitako aztarnen bitartez. Aztarnak gehienetan izen bereziak dira (pertsona, jainko edo leku izenak) edo idazkunak (txanponetan, zeramikan, mosaikoetan, brontze edo berunezko xafletan...).

Idazle klasikoek emandako berrien eta ikertzaileek bildutako datuen arabera, Orotara Hispanian bi hizkuntza aipatu behar, iberiera eta zeltiberiera, eta Galian bakarra: galiera. Hala bada, aitzineuskara hizkuntza zeltarrez inguratuta bizi zen nagusiki, nahiz batzuen ustez baskoien ekialdeko mugan iberiera ere mintzatzea litekeena izan (de Hozek ezetz uste: ik. beherago, § 1.5).

IBERIERA hizkuntza aurre-indoeuroparra zen; K.a. V-IV. mendetik aurrerako idazkunak daude iberierak garatu zuen idazkeran (zehazkiago, haren hiru aldaeretan). Idazkera deszifratua da, baina ez da ulertzen. Antza denez, K.o. I-II. mendeen bueltan hil zen latinaren mesedetan.


ZELTIBIERIERA indoeuroparra zen, “zeltera kontinentalak” izeneko hizkuntzetako bat,<sup>6</sup> aski ezaugarri arkaikoak dituena. Txanpon mordoa gorde da, hamaika teonimo, antroponimo eta toponimo, baina haren lekukotasun garrantzizkoena Botorritako brontzeak dira, K.a. I. mendeko brontzezko xafla batzuk, Contrebia Belaisca-n aurkituak (gaurko Botorritatik gertu, Zaragoza). Lau xafla dira, hiru zeltiberieraz idatziak, laugarrena latinez. Zeltiberiera idazteko iberieraren idazkera erabiltzen zen.

GALIERA ere zeltera kontinentaletako bat da; 800 bat idazkun txiki (onomastika, gehienbat), nagusiki zeramika, txanpon eta bestetan eginak, baita xaflak eta oroitarrak

<sup>6</sup> Izen geografikoa da (“Europa kontinentalean mintzo ziren hizkuntzak”), ez baitago garbi beren arteko erlazio genetikoa zein zen, euren lekukotasunak urriak eta eskasak direlako.

ere. Hasieran alfabeto greziarra baliatzen zuten nagusiki, baina Erromaren konkistaren ondoren latindarra erabiltzen hasi ziren. K.o. V. mendera arte hitz egin omen zen.

Iparraldeko egoera beranduago ikusiko dugu zehaztasunez, akitanierarekin loturik. Hegoaldekoari heltzeko, orokorretik zehatzenera igarorik, linguistikoki Hispania bitan banatu ohi da tradizionalki, toponimian oinarrituta, ondoko mapak erakusten duenez:



*Briga* bukaerako hiri-izenek zeltarren eraginpekoak dira (*briga* ‘hiria’) eta *ili* osagaidunak iberiarren eraginpekoak, ustez behintzat. Mapa orokor honek ez digu esaten, ordea, zehazki zein hizkuntza ziren aitzineuskararen auzoak:

- Nolabaiteko lekukotasun idatziak utzi dituzten hizkuntzen berri baino ez dugu.
- Onomastika —baita leku-izenek dagokienez ere— nola edo hala garaian garaiko joeren eta moden mendean dago: mapak erakusten digu zeltar eta iberiar kulturaren eragina jasaten zuten eremuak, ez nahitaez bertako hizkuntza zein zen.
- Ili* delako osagaia ez dago garbi hiri-izen guztietan (cf. *Pompa-ilu* mapan, adib.), ez dago garbi zer den (iberiera ez baitugu ulertzen) eta, bestalde, euskoiberismoaren argudio zaharretako bat da, eus. *hiri*-rekin lotuta dagoelakoan. Atera kontuak, beraz.
- Iberiera ez dago garbi non mintzo zen eta non ez mapak iradokitzen duen lurralde zabal horretan zehar. Javier de Hoz-ek (2001) aldeztu bezala, oso litekeena da harremanetarako hizkuntza baino ez izatea *ili* izenek betetzen duten edota iberierazko idazkunak agertu diren lurralde zabal horretako hainbat lekutan:

...todos los indicios se oponen a que ese continuum [lingüístico] existiese antes de la aparición de la cultura ibérica, y la lengua ibérica presenta una homogeneidad que, al menos en el área mediterránea, implica una variante específica bien delimitada, sin que por otro lado se vea arqueológicamente el menor indicio de un núcleo capaz de imponer su lengua vernácula a todo el territorio. La hipótesis más económica por el momento es que el ibérico fue lengua vernácula en una parte del territorio en el que está atestiguado y que se utilizó como lengua escrita, en un cierto sentido por lo tanto como lengua vehicular, en otras partes de este territorio en las que se hablaban lenguas vernáculas diferentes.

No podemos llegar a determinar por ahora los límites del área en la que el ibérico era lengua vernácula aunque me parece probable que hacia el oeste alcanzasen desde fecha temprana la Alta Andalucía y que hacia el norte no sobrepasasen de ningún modo el Ebro y quizá tampoco el Mijares<sup>7</sup> (de Hoz 2001: 427).

<sup>7</sup> Mijares ibaia Teruelen jaio eta Castelló-n itsasoratzen da.

Honek esan nahi du, jadanik dakigunez (ik. 3. gaia, § 2.3.1), ez dagoela inolako ziurtasunik aitzineuskara eta iberiera ukipenean egon ziren ala ez.

### 1.5. Ukipena Antzinatean

Auzo-hizkuntzak —zirenak zirela— ez ziren auzoak bakarrik izango: ukipenean biziko ziren, honek dakartzan ondorio linguistikoekin. Lekukotasunen arabera, neurriren batean hizkuntza zeltarrek euskararen arbasoak edo arbasoek baino izen handiagoa zuketean, akitaniarren artean izen galiarren eta Hegoaldean izen zeltarren ugaritasunaren arabera, behintzat. Ugaritasuna ez da pertsona-izenetan bakarrik gertatzen: Akitaniako hiri nagusiaren izena, *Lugdunum*, izen galiarra da (*dunum* ‘gaztelua’ eta *Lug* jaingo gorenaren izena); Hegoaldean ugariak dira zelterazko *-ika* (*Gernika*, *Sondika*, *Gatika*...) eta *-ama* (*Zegama*, *Utzama*) daramaten izenak ere.<sup>8</sup>

Honek galdera bat eragiten digu: non daude mailegu zeltarrak? (cf. Gorrochategui 1987). Zeren eta, hitz gutxi batzuen zelterazko jatorria proposatu bada ere, gehienak edo zalantzazkoak dira, edo behin betiko ukatu dira. Euskararen berreraiketak kolokan jarri du eus. *adar* < zelt. *adarc* etimologia (lehendik ere arazotsua, *-c* horregatik), *adar* aiseago azaltzen baita AEZ-ari dagokion erreduplikazioaren bidez (*\*da-dar*). Zergatik aiseago azaldu? Ba, etimologia multzo oso baten partaide delako, prozesu berbera pairatu bide duten *odol* (*\*do-dol*), *eder* (*\*de-der*), eta abarrekin batera: etimologia multzoak bertako etimologia bakoitza ziurrago bihurtzen du. Zelteraren berreraiketak ere gezurtatu du etimologiaren bat, hizkuntza zeltar jakinekin egindako erkaketak baitziren, eta ez —behar bezala— aitzinzelterarekin egindakoak: eus. *hoge* vs. gal. *ugeint* eta bret. *ugent* < aitzinz. *\*wikanti*.<sup>9</sup>

Gai honetan sakontzea geroko utzirik (cf. 7. gaia), aurrera dezakegu Mitxelenaren hipotesia baino azalpen hoberik ez dugula: baldin eta euskarak zelteratik hainbat mailegu hartu bazituen latin aurreko garaian, zeltarrez inguratuta egoteak eta zeltera ezberdinek aitzineuskarak baino izen hobeak izateak adierazten bide duten bezala, mailegu zeltar horiek latin maileguen geruzak estali bide zituen. Azken batean, latina eta hizkuntza zeltar zaharrak IE hizkuntzak baino ez dira eta, gainera, orain euren ondorengoak daudena baino elkarrengandik hurbilago egon behar zuten orduan. Honek eragiten du batzuetan ez jakitea bietatik zein den egiazko iturria: adibidez, eus. *zarika* ‘sahatsa’ formaren aldetik berdin azal daiteke zelt. *\*salik-* zein lat. *salice(m)* erabiliz. Bestetan, agian, lehenagoko mailegu zeltarra oso antzeko forma zukeen latin mailegu berriak ordezkatu bide zuen, ez-arian bezala, nork daki, beharbada prestigio kontuengatik: esate baterako, aise ordezkak zezakeen latinetiko *errege*-k zelterak emango zuten *\*errige* edo (cf. galieraz *-rix*).

### 1.6. Aitzineuskararen mugak

Funtsean, gero egingo ditugun salbuespenak salbuespen, ez dakigu erromatarrak etorri zirenean Hispanian aurkitu zituzten tribu edo herrietatik zein eman ditzakegun aitzineuskalduntzat, hau da, zein mintzo ziren gaurko euskararen balizko arbasoaz —edo arbasoetz—: “sabemos que en Aquitania y al menos Navarra se hablaba una lengua

<sup>8</sup> Cf. Gorrochategui (1987: 951): “denominaciones actuales como *Deva* o *Utzama* (ant. *Uzama*) remontan a frecuentes y seguros topónimos celtas: IE *\*deiwo-* > celt. *\*dēvo-* ‘divino’ (...) e IE *\*upsamā* > celt. *\*uxamā* ‘la mas elevada’”. Cf. orain Zaldúa (2016).

<sup>9</sup> Cf. lat. *centu(m)* ‘ehun’; antza, *\*wikanti* ‘bi-ehun’ bezala litzateke edo, hobeto esanda, *berr-ehun*.

o lenguas sin duda directamente emparentadas con el vasco pero desconocemos los límites de ese continuum euskérico” (de Hoz 2001: 426). Izan ere, erromatarrek gutxitan dioskute ezer argirik haien hizkuntzaz, zeren eta tribuok arreta gutxitxo sortu baitzieten oro har, are gutxiago euren hizkuntzek.

Dena dela, goiko mapari atxikita, gaurko Euskal Herria inguratzen zuten herrietan kantabriarrak eta beroiak ziurtasunez zeltartzat ematen dira, lekukotasun guztiek norabide horretan daramate eta. Ekialdean, berriz, baliteke iakatarrak (lat. *Iacetani*) aitzineuskaldunak izatea; berriz, ekialderagoko ilergeteak agian egiantzekoagoa da iberieraren hiztunak izatea. Dena dela, batzuetarako zein bestetarako argudioak ez dira sendoak: euskal ondareko toponimia dago Pirinioetan barrena Catalunyaaraino, baina honek ziurtasunez Erdi Aroaraino baino ez gaitu eramaten, ez nahitaez Antzinatearaino (cf. 9. gaia).

Gaur egun eztabaida ezintzat eman dezakegu akitaniarrak eta baskoiak euskararen arbaso batez mintzo zirela, berehala ikusiko ditugun lekukotasun argiek hala bermatuta. Tradizionalki autrigoiak, karistiarrak eta barduliarrak ere euskalduntzat (tarte batez “euskara”, “euskaldun” eta “euskaldundu” hitzak erabiliko ditut, erraztasunaren izenean) emanak izan badira ere, aspalditik zalantza dabil honen inguruan, egiazki euskararen berezko hiztunak ote ziren ala baskoiek euskaldundu ote zituzten. Teoria honi EUSKALDUNTZE BERANTIARRAREN TEORIA deritza, eta lehen aldelea Oihenart izan genuen.<sup>10</sup> Azkenotan berriro ere gure artean hautsak harrotu ditu, *Baskoniako historia bat: euskalduntze berantiarra* dokumentala dela eta.<sup>11</sup> Hona *Wikipedia*-k (s.v. *baskonizazio berantiarra*) dioena:

Hipotesi horrek gaur egun dioenez, euskara Hego Euskal Herrira Goi Erdi Aroan heldu zen, jatorria Akitanian —bereziki Bigorran edo Commingesen— izan zuen migrazio baten ondorioz. Lehenago, baskonizazio berantiarraren hipotesiak zioen baskoiak gaur egungo Euskal Herriko ipar-mendebaldeko lurraldeetara Goi Erdi Aroan, bereziki V. eta VI. mendeetan, heldu zirela, eta haiekin batera euskara. Hipotesi hau aldezteko, aztarna arkeologikoen, toponimiaren eta onomastikaren interpretazio jakin bat egiten da.<sup>12</sup>

---

<sup>10</sup> “Parece que la región de los Várdulos, Autrigones y Caristos fué ocupada por los Vascos...” deitzen da Oihenarten *Notitia*-ko VI. kapitulua. Eta bertan honela dio (gaztelaniazko itzulpena, 157. or.): “...parece más natural atribuir a los Vascones, vecinos suyos, la conquista de la Vardulia por el valor de las armas. Íntegras se conservaron sus fuerzas, durante el dominio de los godos en España; y por eso hacían frecuentes excursiones por las vecinas regiones, ya por odio a los godos, ya con el intento de dilatar sus fronteras. Además, ocurren otros argumentos no débiles para confirmar esta sentencia, sacados del nombre, de la semejanza de las costumbres y del uso de la misma lengua entre los dos pueblos. Pues los franceses llaman a los Bizcaínos, Alaveses y Guipuzcoanos con el nombre común de *Bascos*, voz, que sólo por el modo de declinar y pronunciar se distingue del nombre Vascones. Mas los españoles los llaman Vascongados, y Vascuence su lengua, tomando la doble denominación de los mismos Vascones”.

<sup>11</sup> *ETB*-k ekoitzi eta 2015eko iralean bota zuen. Hona lotura: <<http://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/baskoniako-historia-bat/bideoak/>>. Dokumentalean, antza denez, Mitxelena, Gorrochategui eta beste euskalduntze berantiarraren teoriaren kontra ez, baizik eta edo epel edo ia-ia alde agertzen omen ziren, gogoz kontra, jakina. Honek euskaldunen artean sortu zuen ezinegonak hainbat ondorio izan zituen: besteak beste, E. Breñas & X. Iasiren iritzi-artikulua (<http://www.noticiasdealava.com/2015/10/01/opinion/datuak-ezkutatzen-dituen-dokumentala>), hainbatek sinatutako gutuna (<[https://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2016-10-11/euskalduntze\\_berantiarra\\_dokumentala\\_salatzen.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1832/016/003/2016-10-11/euskalduntze_berantiarra_dokumentala_salatzen.htm)>) eta Aitzol Altunaren liburua: *Desmontando la vasconizacion tardia* (CreateSpace Independent Publishing Platform, 2017).

<sup>12</sup> *Wikipedia*-ko azalpena aipatu dut, erraz eta labur kontatua delako. Bertara jotzen baduzue, ikusiko duzue hizkuntz frogak ere agertzen direla (artikulua bai ala ez, datiboaren forma, eta abar): ez jakin nork sartuak diren, baina datu anakronikoak edota faltsuak dira eta, beraz, ezabatze modukoak: dakigunez, artikulua Erdi Aroan sortu zen, ziurrenik VIII-X. mendeen bueltan; akitanierazko *-e* datibo delako hori, nik behintzat ez dakit nondik irten den: ez adituen idatzietatik behinik behin. Hau irakasgarria izan



Hipotesia, beraz, honako datuotan oinarritzen da (lehenengo biak “klasikoak” dira, eta beste biak modernoak):

1. “*bascongado* < *vasconizado* = euskaldundua” ustezko kidetasuna.
2. Goi Erdi Aroa baino lehenagoko Hego Euskal Herriko euskal itxurako lekukotasunak urriak eta zalantzazkoak dira; zelterazkoak argiak eta ugariagoak, hala toponimian nola onomastikan.
3. Euskalkiak Erdi Aroan sortuak dira: ezin dira tribuekin lotu. Aitzitik, lehenik Iruña inguruan agertu eta handik zabalduakotzat jotzen badugu (zehazki Iruñetik Gasteiza eta hemendik Bizkaia eta Gipuzkoara, VI-VII. mendeetan) hobeto ulertzen omen da Euskara Batu Zaharraren kontua:

En lo relativo al territorio del País Vasco el avance de la lengua vasca en sus diferentes dialectos se ha hecho siguiendo el eje Pamplona – Vitoria, sobre lo que fue la antigua calzada romana Iter XXXIV, para desde allí ascender hacia la costa, como ya se ha comentado. Sigue, por tanto, una trayectoria “urbana” que va por la principal vía de comunicación y desde los principales núcleos de población hacia las entidades menores y más apartadas. Este tipo de comportamiento necesariamente está vinculado a estructuras de poder y élites (Iglesia, Reino de Pamplona) o a grupos humanos cohesionados capaces de imponer su voluntad, como debieron ser los hablantes de estos dialectos vascos (Abaitua & Unzueta 2011: 24).

4. Gure lurraldean zehar aurkitu diren VI. eta VII. mendeko nekropoli (hilerri) batzuetako aztarnek erakusten omen dute garai hartan migrazio bat izan zela Akitaniatik; izan ere, bisigodoena izan beharrean, frankoen —zehazkiago merovingiarren— ehorzketa errituen kultura ezaugarri guztiak ageri dituzte:

En este sentido, y para la fase inicial de la diversificación dialectal y del corrimiento del euskera hacia los nuevos territorios de Álava, Guipúzcoa y Vizcaya (s. VI y VII), se ha comentado la posibilidad de relacionar a los portadores de la lengua vasca con los finados en las necrópolis que se han dado en llamar merovingias o con ajuares de esta tipología. Éstos surgen como evidencias arqueológicas, hasta hace unos años insospechadas, a lo largo de la vía de penetración Pamplona – Vitoria, como es el caso de San Pelayo (Alegría-Dulantzi) y Aldaieta (Nanclares de Gamboa) en Álava, pero a su vez también aparecen en lugares tan apartados como Fínaga (Basauri) y Santimamiñe (Kortezubi), ambas en Vizcaya (*ib.* 24).

Euskalduntze berantiarra datuon interpretazioa denez —gogora ikastaroaren hasieran historialarien interpretazioaz esan genuena— lehen-lehenik eskura ditugun datu guztiak poliki aztertu beharko ditugu, eta gero bakarrik neurtu ahalko ditugu teoria honen argi-ilunak. Dena dela, Mitxelenak esana aurreratuko dugu:

Será siempre ocioso el interrogar a los autores clásicos sobre la lengua de los vándulos y caristios, por no hablar de la de los austrigones: aunque éstos callen, todo el mundo parece estar de acuerdo en que los vascones, por aquello del nombre y también porque el euskara al fin y al cabo tuvo que hablarse ya entonces en alguna parte, no lejos de aquí, eran vascos de lengua, aunque con razonable seguridad esto no debía ya de ser cierto para todos ellos en el siglo I a.C. Por lo que ellos nos dicen, tanto se puede sostener que vándulos y caristios, al menos en la parte norte de su territorio, hablaban la misma lengua que los vascones septentrionales, como que la coincidencia se daba más bien hacia el oeste, con las hablas cántabras sin duda indoeuropeas, ya que a veces los textos parecen olvidarse de su existencia específica al incluirlos, por omisión o comisión, entre los cántabros. Somos bastantes los que pensamos que la primera hipótesis es la que tiene más probabilidad de ser correcta, aunque sólo sea por razones de economía: para pensar que una lengua que luego vemos firmemente implantada en un territorio hasta el día de hoy es ahí advenediza, tiene que haber razones de fuerza excepcional (Mitxelena 1982: 303).

---

daiteke guretzat: euskalduntze berantiarraren aldekoek zein kontrakoek euskalariari balio ez dioten baieztapenak egingo dituzte, eta guk baieztapenok neurtzen jakin behar dugu, alde zein kontra egon.

Gorago bildutako argudioek halako itxura bat ematen badiote ere teoriari, banan-banan hartuta pisu gutxi dute; ez dira, hortaz, Mitxelenak eskatzen zituen “razones de fuerza excepcional” motakoak, eta are batzuk gaur egun deuseztatutakotzat eman behar ditugu: (1) *Vascongado* ‘euskalduna’ da lekukotzen denetik, ez ‘euskaldundua’. (2) Leku-izenetan *Deba*-ren alboan zergatik ez aipatu euskal etimologia daukaten hamaika ibai, mendi eta herri-izen? Pertsona-izenetan, norainoko garrantzia izan zuten moda kontuek? (3) Euskara Batu Zaharraren kontuak EZ DU mendebaldeko euskaldunen euskalduntzearen beharrik azalpen ona izaten segitzeko: dialektologia historikoa aski da. (4) Arkeologoek esaten digute nekropolis horietan lurpetuta daudenak ez direla gerrari merovingiarrak, arma gutxiegi daudela konkista batez hitz egiteko; genetistek ere berretsi dute hezurak bertokoak direla, ez kanpotik etorritakoak (ik. orain Pozo 2016). Edonola ere, ez dago inolako inbasioen aztarrenik. Gehienera jota, eta horixe adierazten bide dute aipatutako nekropoliek, Iparraldetik datorren kultur eragin garbia, ez daukana zertan inbasio edo konkistarekin loturarik izan, ezta hizkuntzaren inposizioarekin ere.

Bidenabar, dakidalarik, ez dute zehaztu euren ustez ea zelteratik zuzenean igaroko ziren euskarara karistiar eta barduliarrak, ala bien bitartean latinez ere hitz egin ote zuten, hots, K.a. I. mendera arte edo zelteraz, orduetik pixka batera latinez pare bat mendez edo hiruz, eta IV-V. mendetik aurrera euskaraz. Bigarren aukera harrigarri xamarra da oro har; lehenengoa, alegia, zelteratik euskarara zuzenean igaroz gero, agian dagoena baino zeltaren eragin gehixeago esperoko genuke euskararen, atzo goizeko hizkuntz aldaketa izanik, ez bakarrik lexikoan, baizik eta hizkuntzaren beste osagaietan —fonologian, morfologian eta joskeran— ere garbi islatzeko modukoa, alegia.

Dena dela, beti bezala, argudio onenak —hizkuntz historialari batek bilatu behar dituen lehenak eta indartsuenak— hizkuntz argudioak dira. Euskalduntze berankorra aldeztu dutenek izenen jatorrizko hizkuntza ematen dute argudio bakartzat (izen hau zeltarra da, bestea latindarra, etab.), baina Mitxelenak aspaldi erakutsi zigun izenen jatorria gorabehera batzuetan hori ahoskatu duten hiztunen hizkuntzaren aztarna gardenak aurkitzen ditugula. Hala bada, Gorrochateguik (2015) ondokoak zerrendatu ditu:

1) *-ika* atzizki zeltan bokal arteko herskari ahoskabea dugu, baina hori euskal hiztunen ahotan bakarrik gertatu da (bokal arteko edozein etorkitako herskari ahoskabeak mantendu izana, alegia): latinetik erromantzerako bidean, oso goizik, halakoak ahostundu egin ziren. Orduan, *-ika*-ren ordeztu *\*-iga* izango genuke.

2) *Getaria* lat. *caetaria*-tik dator, eta hasierako herskaria ahostunduta dakusgu, euskaldunek antzina hartutako gainerako latin mailegu zaharretan bezalaxe; latinetik erromantzerako bidean, oso goizik, lat. /ke/ eta /ki/ palataldu egin ziren Erromania guztian.<sup>13</sup>

Beste era batera esanda, *Sondika* eta *Getaria* izenak erabili zituzten hiztunen hizkuntzak EZ ZUEN bokal arteko herskariaren ahostuntzea pairatu, ezta hitz hasierako lat. /ke/ eta /ki/-ren palataltzea ere, eta honen ordeztu hizkuntza horrek /ke/ eta /ki/ /ge/ eta /gi/ bezala gorde ditu. Paraje hauetan hori egin duen hizkuntza bakarra ezagutzen dugu: euskara.

---

<sup>13</sup> “...deriva del latín *cetis*, que significa ‘pez de gran tamaño’ y es préstamo de la palabra griega *kethos*, de la que deriva *cetáceo* y que puede significar ‘monstruo acuático’ (atún o ballena)” (*Wikipedia. La libre enciclopeida*, s.v. *Caetaria*). Algeciraseko udalerrian bazegoen *Caetaria* izeneko leku bat, erromatarrek sortua, arraina gatzetan jartzeko lantegia izan zena. Xede bera zuketean, jakina, gure bi Getariak.

Argudio hauei “alambicados”, hau da, “korapilatsuak” derizte Abaituak & Unzuetak (2011), euskalduntze berankorraren teoria hobeto funtsatu nahi izanez gero alor batzuetan —fonetika historikoan, adibidez— gehixeago sakondu beharko luketelako seinale.

## 2. Akitaniera zer den

BIBL→ Gorrochategi (1984): “Aquitania” (37-69. or.) eta “Conclusiones lingüísticas” (355-380. or.).  
Mitzelena 1954a.  
Gorrochategui (2013)

### 2.1. Akitania eta akitaniarrak

Akitania zen (artean izenak izana aldatu baitu)<sup>14</sup> Pirineoen, Garona ibaiaren eta Atlantikoaren artean zegoen lurraldea.

Iturri klasikoek (Zesar, Estrabon) Galiako beste herrietatik ondo bereizten dute. Lehen lekukotasuna Zesarrek emana da. Galien konkistaz (K. a. 58-51) egin zuen kronikaren (*De bello gallico*) hasiera-hasieran hiru naziotan bereizten du lurraldea, eta zeinek bere hizkuntza zutela zehazten:

Gallia est omnis diuisa in partes tres, quarum unam incolunt Belgae, aliam Aquitani, tertiam qui ipsorum lingua Celtae, nostra Galli appellantur. Hi omnes lingua, institutis, legibus inter se differunt.

Galia hirutan banatua da: bata belgen lurraldea, bestea akitaniarrena eta hirugarrena euren hizkuntzan “zeltak” eta gurean “galoak” deritzeguna. Denak ezberdinak dira hizkuntzaren, ohituren eta legeen aldetik.

Akitaniaren barnean hainbat herri deskribatzen dira, Erroma azpian “hiri” (hots, hiri baten azpiko lurralde) ezberdinak osatu zituztenak; garrantzizkoenak konbenarrak ekialdean (*Conuena*), auskiak erdialdean (*Auscii*) eta tarbelarrak mendebaldean (*Tarbelli*). Lurralde hauek inperioaren administrazioaren azpian gehiago zatikatuko dira. Tarbelarren lurraldearen hego-mendebaldean dago gaurko Ipar Euskal Herria; hortik banatuko ziren denborarekin benearnarrak (*Benearni*) eta ilurondarrak (*Iluronenses*), hots, geroko Bearn eta Oloron izen ezagunen aurrekariak.

### 2.2. Idazkunak

Honezkero badakigu idazkera Europan Mediterraneo itsasoaren ingurumarietan zehar hedatuz joan zela. Badakigu, halaber, Galian erromatarrak etorri baino lehenago galiera idaztekoan idazkera greziarraz idazten zela, eta Hispanian idazkera berezi bat garatu zela iberiera idazteko, K.a. IV. mendetik edo lekukotua. Idazkera hau berau baliatu zuten zeltiberiarrek ere euren hizkuntza idazteko K.a. II. mendetik aurrera. Ostera, Hispaniako eta Galiako gainerako hizkuntzek idatzi gabe ziharduten, artean euskararen arbasoa edo arbasoak eta, aurrerantzean bizirik jarraitu zuten heinean, horrela jarraituko zuten gero ere luzaro.

Hala eta guztiz ere, handik eta hemendik lekukotasun gutxi batzuk berreskuratu dira. Alde batetik, iturri klasikoetan agertzen diren herri eta leku-izenak. Ezagun eta emankorrenak bi hauek: Plinio Zaharraren *Historia Naturala* liburuan (k.o. I. mn.) eta Ptolomeo-ren *Geografia* (K.o. II. mn.; honetaz ik. Gorrochategui 2000). Bestetik aztarna arkeologikoetan aurkitutako lekukotasun mota ezberdinak.

---

<sup>14</sup> Gutxienez lau Akitania bereizi behar dira: Zesarrena, Augustorena, Akitaniako dukerria eta gaurko Akitania. Augustoren garaian Akitania Loirairaino hedatu zen eta Zesarren Akitaniari *Novempopulania* izena eman zitzaion. Akitaniako dukerria erakunde feudal bat zen, egungo Akitanian bertan zegoena, Goi Erdi Aroan sortua (agian 675. urtean). Gaurko Akitania Frantziako hego-mendebaldeko eskualdeak osatzen du, zehazki Dordoina, Gironda, Landak, Lot-et-Garona eta Pirinio Atlantikoak izeneko departamentuek, eta gutxi gorabehera Augustoren Akitaniaren mendebaldea baino ez du hartzen.

Iberiar alfabetoan idatzitakoak baskoien lurraldean batez ere agertu dira, kultura iberiarraren eraginpean zeuden seinale. Oso gutxi dira: bizpahiru testutxo hizkuntza aurre-erromatarren batean. Adibidez, Andelos-ko mosaikoan agertzen den idazkitxo ez dago garbi zein hizkuntzetan den: zeltiberiera gehienen ustez, aitzineuskara Belazaren ustez: LIKINE ABULORAUNE EKIEEN BILBILIARS.

Txanponak ugari ditugu iberiar alfabetoan, baina izen bereziak baino ez dituzte eskaintzen, ustez txanponak jo zituzten herrienak (inoiz agintarienak?), hala nola IAKA (gaurko Jaka). Ospetsuena *ba(r)škunēs* txanpon etxea, *r*-rekin zein gabe, ez dagokiona inolako herriari eta, zerbaitekin lotzekotan, gero latinez *vascones* izango direnekin lotu ohi dena, ziurtasunik gabe bada ere.

Nolanahi ere den, “akitania” deitzen dugun hizkuntza Erroma garaiko idazkuntan oinarritzen da ia ehuneko ehunean. Izan ere, alfabetatzea Euskal Herrian erromatarren etorrerarekin zeharo lotua dago. Idazkunak harriaren gainean egindakoak dira, jainkoen eta hildakoen omenez; erromatarrek egin ohi zituzten erako oroitarriak baino ez dira, beraz, eta latinez daude guztiak. Dena dela, harri horietako batzuetan beste ezin hizkuntzarekin azal ezin daitezkeen izen bereziak daude, jainko eta pertsona-izenak, eta izenok nola edo hala, argiago edo ilunago, euskararekin lotuta daude, hobeto esanda, euskararen arbaso zuzen edo zeharkako batekin.<sup>15</sup>

Ikus dezagun idazkuntetako bat, Lergako ederra, ezkerretara harrian agertzen den era berean emana, eta eskuinetara interpretatua:

VM.ME.SA.HARFI	UMMESAHAR FI[LIUS]	NORK
NAR.HVN.GE.SLA.BI	NARHUNGESI	NOREN
SVN.HA.RI.FLLIO	ABISUNHARI FILIO	NORI <sup>16</sup>
<b>ANN. XXV.T.P.S.S.</b>		

Letra beltzez emanak direnak latinezko zatiak dira: *filio* ‘semea’ (*fi-* laburdurak ere horixe adierazten du) eta azken lerroan ageri den *data* (*ann.* = *annus* ‘urtea’).<sup>17</sup> Orduan ez ziren hitzak banatu ohi: agerian denez, silabak banatu dira interpunzioa (puntuak) erabiliz, eta harriak kabitu ahala idatzi da, kabitu ezean izena hurrengo lerroan idatzirik (*abi-/sunhari*).

Akitanierazko idazkunak ez dira lurralde guztian zehar berdin aurkitzen. Oro har Akitania bitan bana daiteke: ekialdea eta mendebaldea. Ekialdeko zatian, Garona ibaiaren isurialdeko lurretan, idazkunak oso ugariak dira eta *civitas* edo hiriaren bazter guztietan kokatzen dira, hiriburura mugatuak izan gabe; lurralde honetan konbenatarren (*conuenae*) eta auskien (*ausci*) hiriak dira idazkun gehien eman dituztenak: konbenatarrek 500 inguru, auskiek 85 eta konsorandarrek (*consoranni*) 20. Mendebaldean, Aturri ibaiak Landak eta Euskal Herria batzen dituen eremuan, ordea, idazkunak ia bakarrik hiriburuetan agertzen dira, hala nola Akizen, Aire-sur-Adourren eta Mont-de-Marsan-en. Hiri hauetako idazkunak guztira 53 besterik ez dira.

<sup>15</sup> Idazkun batzuen argazki ederrak, Eduardo Orduña Aznar-ek bilduak, hemen: <[http://eorduna.awardspace.com/cast/insc\\_aquitanas.html](http://eorduna.awardspace.com/cast/insc_aquitanas.html)>.

<sup>16</sup> Agian “Ummesahar-ek Abisunhar Narhunges-en semeari” egina. Ez da erraza, dena dela; hona Gorrochateguiren iruzkina (2013: 40): “akitaniar izenak normalean latin gramatikara egokitua daude, (...) nahiz eta egokitzea ez den beti modu uniboko batean egin, horrek idazkien ulermenerako sortzen dituen arazoezin (ik. Lergako inskripzioa: *Ummesahar fi(lius) Narhungesi Abisunhari filio ann. XXV t. p. s. S.*, non ez dakigun Abisunhar Narhungesen ala Ummesaharren semea den)”.

<sup>17</sup> T.P.S.S. ez dakit zer den. Sigla mordoa ageri da erromatar idazkuntan, eta hau ez bide dago usuenik erabili zirenen artean, baina latinezkoa izango da, dudarik gabe.

Banaketa desorekatu honek zerikusi gehiago du, dudarik gabe, Akitaniaren banaketa kulturalarekin beste edozerekin baino: izan ere, idazkunak egiteko ohitura mediterranearen herrien ezaugarri kulturala zen, erromatarrek azken gailurreraino eramana. Ekialdeko Akitaniako epigrafia aberatsa, lurralde bereko ardo anforen ugaritasuna bezala, erromatar kulturalarekin izan duen ukipen goiztiarraren ondorioa da. Zenbat eta erromatartuago, hainbat eta idazkera erabiltzeko aukera gehiago. Horregatik, ekialdeko leku hiritartu eta, hortaz, erromatartuenetan agertu dira gehienak, Lugdunum Convenarum-en (egun Saint-Bertrand-de-Comminges, Gaskonia)<sup>18</sup> ingurumarietan batez ere, hiri hau izan baitzen alderdi haiek erromatartzeko gunea nagusia.

“Akitaniera” izena ematen diogu, bada, hasiera batean idazkunak Akitanian aurkitu zirelako. Egun ere gehienak bertakoak dira, baina, halere, astiro-astiro beste leku batzuetan ere agertu dira “izen akitaniarrak” dituzten idazkunak, hau da, akitanierarekin lotzeko moduko ezaugarriak dituztenak. Izan ere, erraza izaten da izenak akitaniarrak direla erabakitzea: hasperenaren ugaritasunak eta erro-atzizkien konbinazioek, geroago aztertuko ditugun beste ezaugarri batzuekin batera, berehala ematen dute aditzera izenak nongoak diren.

Aurkikuntza harrigarriena, Rin ibaia dragatzen eta garbitzen ari zirelarik egindakoa da (Gorrochategui 2003). Ibaia Hagenbach hiritik (Alemania) gertu igarotzen den alderdian hondoratutako altxor handi baten barnean<sup>19</sup> akitaniar izenak dituzten 34 zilarrezko xafla agertu dira. Xaflak botiboak dira, hots, agindu bat betetzekotan jainkoei eskainiak. Xaflatan aipatzen diren 29 pertsonetatik hamahiruk akitaniar izenak dituzte, eurek edota euren aitek. Egiantzekoa da xaflak Lugdunum Convenarum-en inguruko santutegiren batekoak izatea da, eta Rin aldera Erromako ejerzituarekin batera heltzea. Hona izenak:

Andos Leurisi	Iulianus Bioxxi filius
Andossus Banbixxi	[I]ulius Bonnoxus
Andossus Obbelexxi filius	Seue[rus Iua]lis
Bambixxus Semeocci	Silixiu[s] Carerdonis
Berexe Sembi filia	Verecu[n]du(s) Belexi
Bonxu(s) [D]onni [f]ilius	Victoris Sembi
Bonxu(s) Sembedonis	Xalinis Salixi
Cereco Tessebari	Xembesus Hissi
Ciurxos Doxxi	Xembus Bambixxi
Iuliana Handos Domini	

Izenotan lehendik ezagunak zirenak errepikatzen dira (*Andossus*, *Bonxus*, *Belex*, *Sembus*), edo haien aldaera grafiko edo morfologikoak (*Bambixxus*, *Bioxxus*, *Handos*, *Sembedo*, *Xembus*). Oro har, dena den, ez dago eragozpenik berriak ere izen akitaniartzat emateko. Ohartzekoa da, bestalde, akitaniar hauetako batzuek dagoeneko izen latindarrak zituztela (*Juliana*, *Julius*, *Victoris...*); xaflatan agertzen den jainko bakarra ere Marte da, erromatar mitologian gerraren jainkoa zena. Honek eman diezaguke akitaniarron erromatartzearen neurria.

<sup>18</sup> *Lugdunum* ‘Lug jainkoaren gaztelua’ omen da, eta hala *-dunu* zatia (‘gaztelua’) nola *Lug* jainko izena galierazkoak dira: izan ere, *Lug* mitologia zeltarraren jainko nagusietako bat da, mundua sortu zuena. *Lugdunum Convenarum* hiriaren sortzaileak —berriz ere Ponpeio, *Pompaelo* sortu zuen bera— jarri zion latinezko izena dugu. *Convenae* tribu akitaniar baten izena izanik, ‘Konbenatarren *lugdunu*-a’ ulertu behar dugu.

<sup>19</sup> “Parece que todo aconseja pensar (...) que nos hallamos ante un botín procedente de los saqueos y devastaciones que llevaron a cabo tribus germanas en el tercer cuarto del s. III. d.C. or el sur de Francia y por Aquitania, que acabó en el lecho del río Rin a causa de un hundimiento fortuito en un intento de ser transportado [el tesoro] a la orilla derecha del río” (Gorrochategui 2003: 27).

Akitanieraren *corpusa* Erromako Inperioan zehar sakabanaturik egon litezkeen izen akitaniarrez ere osa liteke. Berriki (cf. Gorrochategui 2007: 631) Ardara-n (Sardinia) agertu den idazkun batean honako hau irakurtzen da:

Orcoeta / Lihonis f(ilius) / Con(uenus / soranus) mil(es) / [coh]or(te) Aq/ [ui]t. anno(rum)) / ...<sup>20</sup>

Argi ikusten da *Orcoeta*, *Lihonis*-en semea, Akitaniar kohorteko (*cohorte aquitanorum*) soldadu (*miles*) batena dela, eta edo *civitas Consoratorum* edo *Convenarum*-ekoa zela. *Orcoeta* izenak baditu paraleloak Akitanian (*Orgot, Orcot[, Orcotarris...*); *Lihonis* aitarenak ez, baina hasperenak bide ematen digu akitanierazko corpusean sartzeko, semearena ere bezala.

Alemanian eta Sardinian agertutako izenon balioa ukatu gabe, esan gabe doa garrantzi gehiago duela Pirinioen hegoaldean ere garai bereko horrelakoak aurkitu izanak, orduko hizkuntzaren hedadura finkatzen laguntzen digu eta. Aurreratuko dugu Hegoaldeko izen akitaniar guztiak baskoien lurraldetzat eman dezakegun eremuan ediren direla.<sup>21</sup> Lehendabiziko agerpena, Lergako<sup>22</sup> idazkuna da, 1960an topatua. Harrezkero, idazkun gehiago agertu dira Nafarroan bertan, Arabako lautadan, Oiartzunen eta, Euskal Herri historikotik kanpo, Aragoian eta Sorian.

– Nafarroan

SELATSE, LOXAE, LARRAHI...

– Arabako Lautadan (6 guztira)

ATTIA, HELASSE, AITUNEO (jainko izenak)  
LUTBELSCOTTIO, LUNTBELSAR (gizon iz.)  
ILUNA (emakume iz.)

– Oiartzunen

K.o. I. mn.  
VAL(ERIU) BELTESONIS FIL.

– Aragoian

Valpalmas-en (Segia)<sup>23</sup> agertutako hilarria  
P. CALPURNIUS SERHUHORIS

– Sorian

Moncayo mendiaren magaletan, Cidacos-Linares haranetan  
Gómez Pantoja & Alfaro Peña (2001)

SESENCO  
ARCITHAR, ARBITHAR  
ONSO / ONSE

### 2.3. Akitanieraren *corpusa*

Bizirik dauden hizkuntzetan ez bezala, hildako hizkuntzak corpus jakin eta itxi bat daukate: “corpus-hizkuntzak” dira.

<sup>20</sup> Marrek lerro aldaketa adierazten dute, poesian bezala. [ ikurrak hitzaren bukaera ez dela irakurtzen; batzuetan editoreek osatua da. Parentesien bidez latin laburdura usuak osatzen dira.

<sup>21</sup> Garai ilunean zehar ere (zehatzago, VI-XI. mendeetan) akitanierazko onomastikaren ildoko izenak aurkitu dira hilarri eta idazkuntan (Azkarate & Garcia Camino 1996), baina honetaz hurrengo 9. gaien jardungo dugu.

<sup>22</sup> Lerga Nafarroako udalerria da, Zangozako merindadearen hegoaldean kokatua.


<sup>23</sup> Segia egungo Ejea de los Caballeros-en (Zaragoza) zegoen erromatar hiria izan zen, lehenagoko baskoi herrixkaren gainean eraikia.

Euren artean ezberdintasun handiak daude: latina, grekoa eta sanskritoaren corpus-hizkuntzak dira, baina euren gramatika oso ondo ezagutzen dugu, eta lexikoaren aldetik ere arlo guztiak ondo xamar daude ordezkatuta.

Beste muturrean daude, adibidez, zeltiberiera eta 1.500 bat hitz dituen osko-umbroa: hutsune handiak ditugu hizkuntza hauen ezagutzan. Honelakoei “hondar-hizkuntza” deritzegu, nolabait “hondarrak” baino ez baitzaizkigu iritsi.

Akitaniera hondar-hizkuntza hauetako bat da: *corpusa* oso urria da (300 bat hitz). Izan ere, etruskoarena baino urriagoa da, iberiera eta zeltiberierarena ere baino askoz urriagoa. Akitanieraren *corpusa* baino txikiagoa, agian tartesierarena bakarrik (100 bat hitz, eta %50 inguru irakurtezina oraindik).

Corpusaren nolakoari dagokionez, are txarragoa den zerbait izan behar dugu argi: akitaniera egiazki lekukotu gabeko hizkuntza dugu, gorde ditugun lekukotasun guzti-guztiak zeharkakoak baitira, aipatu ditugun gainerako hondar-hizkuntzena ez bezala, izan idazle grekolatindarrenak, izan latinezko idazkunak. Ondo dakigunez, gainera, izen bereziak baino ez dira, izen hauek dituzten muga eta berezitasunekin.



Akitanierazko izenak (*Hotarris*, *Sembeten*[, *Baisothar*) latinezko idazki batean.

Orduan, zer dela eta baieztatzen dugu hizkuntza baten aurrean gaudela? Gorrochateguik lau argudio ematen ditu:

- Antzinateko idazleen lekukotasun argiak
- Idazkunen banaketa geografiko zehatza
- Begi-bistako ezberdintasunak auzoko izenetatik
- Erro-atzizkien erabilera koherentea

Dena dela, honek ez luke inolako ondoriorik, Erroma aurreko hainbat hizkuntza legez beste lekukotasunik utzi gabe euskara hil izan balitz, beronek “ematen baititu soil-soilik antzinako lekuko bakanak azaltzeko eredia eta bidea” (Gorrochategui 2013: 14). Beste era batera esanda, euskara historikoarekin erkatzeko aukerari esker bakarrik hartzen dute zentzua akitanierazko lekukotasunek.

Akitanian aurkitzen diren izenak ez dira denak akitanierazkoak: dakigunez, badira galierazkoak eta latinezkoak ere. Orduan, zer sartzen akitanierazko corpusean? Bada, hiru izen mota:

1. Euskara historikoaren bitartez etimologia ona dutenak: Lergako *Umme Sahar* gardena da, adibidez, *ume* ‘haurra’ + *zahar* osagaiak izanik; semantika beti izaten da alderdirik labainena, baina kasu honetan pentsa liteke ‘seme nagusia’ edo zatekeela. Gauza bera gertatzen da *Andere*, *Sembe*, *Cison* eta hainbat horrelakorekin.
2. Beste inon lekukotzen ez direnak: Lergako *Abisunhar* ez da batere gardena, lehen begiratuan ezin dugu euskararen bitartez azaldu, baina ez zelterak, ez latinak azaltzen ez dutenez akitanierazkotzat joko dugu. Adibide honek badu,



gainera, ezaugarri fonologiko garrantzizko bat, hasperena, are zailago egiten duena Akitanian akitanieraz beste hizkuntza batekoa izatea (cf. beherago). Nork daki, agian denborarekin azalpena aurkituko dugu, baina, nolahi ere den, lexikoa izanik hizkuntzaren alderdirik aldakorrena, ez dirudi ezinezkoa denik artean hainbat erro desagertu izana.

3. Modu berezi batez aldatuak, nahiz jatorriz indoeuroparrak izan. Akitaniarrak kultura galiar eta erromatarra nagusitu ziren ingurune batean bizi ziren. Honek, batetik, izen hibridoak ugari eragin zituen: *Bambiolus Bambi* izen akitaniarrak eta *-olus* latin txikigarriaz osatua da; *Belheiorigis Belheio* izen akitaniarrak eta *-rix* ‘errege’ erro galiarraz. Bestetik, badira fonetikoki desitxuratuak diren izen indoeuroparrak ere: *Dunohorigis* osoki da galiarra, *duno* ‘gatzelua’ eta *rix* ‘erregea’ erroez osatua, eta beraz *Du(m)norix* galiar izenaren aldaeratzat har daiteke, baina tarteko *-oho-* horrek garbi adierazten du akitaniarren ahoskerari egokitua dela, akitanierazko hasperenak galierazko nolabaiteko intentsitatea (azentua?) “itzultzeko” erabiliz.

Oso garrantzizkoa da gogoan hartzea hurbilketa formala dela, hots, forman oinarritzen dela, semantikan nolabaiteko oinarria bilatu arren ere, izen bereziek ez baitute esanahirik: norbait adierazi besterik ez dute egiten. Dena den, egia da isola ditzakegun erroen artean, euskara historikoaren argitara, homogeneotasun handia dagoela, hots, uler ditzakegun neurrian arlo semantiko gutxi batzuk baino ez direla aurkitzen, eta hauek ere antroponimian espero izatekoak direnak:

- Sexua, ahaidetasuna, adina: *Andere* (eus. *andere*), *Nescato* (eus. *neskato*), *Sembe* (eus. *seme*), *Seni* (eus. Ip. *sehi* ‘zerbitzaria’; B *sein* ‘umea’), *Cison* (eus. *gizon*)...
- Animaliak: *Hars-* (eus. *hartz*), *Oxson* (eus. *otso*), *Aher-* (eus. *aker*), *Asto-* (eus. *asto*)...
- Zenbakiak (?): *Laur-* (eus. *lau(r)*), *Bors-* (eus. *bor(t)z*, *bost*)

Laur-co, Laur-eia (emak.), Laur-inae (dat. emak.)

Bors-ei (gen), Bors-o (dat), Bors-us (nom)

- Izenondoak: *-berri* (eus. *berri*), *-gorri* (eus. *gorri*), *Belex-* eta *-bels* (eus. *beltz*), *-ilunn* (eus. *ilun*)

Ilur-berri; Bai-gori-xo, Heraus-corri-tsehe; Belex, Belex-conis, Belex-eia (emak.), Har-belex, Aher-bels-te; Ilunn-osi (gen), Astoilunno, Arsilunno

Bestalde, konparaketa hutsa antzua da. Adibidez, *Turma Salluitana*-ko izenetako bat, *Adimels*, honela azaltzen du Silgo-k (2009: 141): “Los respectivos miembros del compuesto son ibero-vasc. *adin* ‘edad’ y *beltz* ‘negro’. El profesor Juan Martín Elexpuru nos escribe (24/05/2010) que *adin* = ‘edad’ le parece claro, pero *adin-beltz* ‘edad negra’ es un significado raro. Por otro lado, un elemento tan común en ibérico como ADIN se le hace extraño que signifique ‘edad’”. Silgoren iruzkinak ez dauka inolako interesik, ez baititu galdera beharrenak batera kontuan hartzen.<sup>24</sup> Lehen begiratuan, jadanik ezagutzen dugun *nb > mb > mm > m* aldaketaren beste adibide bat izatea (*\*adin-bels*) litzateke *Turma*-ko izen honen ezaugarri garrantzizkoena (oraingoz

<sup>24</sup> Niri bi galdera bururaten zaizkit. Hasteko, ea *Adimels* akitanierazkoa den, ala hibridoa (*Adin* iberierazkoa + *bels* akitanierazkoa). Osoki akitanierazkoa izatekotan, balirudike ez dutela aldaketa semantikoa ere ezagutzen: *Adin-* = eus. *adin* egia balitz, beti ‘edad’ izan ote da? edota ‘edad’ bakarrik?.

behintzat). Izan ere, euskal etimologiaren laguntzaz gainera, ganorazko azterketa linguistikoa ezinbestekoa da: “[i]zen zahar hauek, bakan batzuk salbu, ez dute berez antzinateko hizkuntzen egoera azaltzeko edota orduko euskararen egitura deskribatzeko indarrik, ez baldin badira lehenago hizkuntzalaritza konparatuaren ikuspuntutik sailkatzen eta argitzen” (Gorrochategui 2013: 13).

Beraz, bi oinarri horien gainean —euskarak eman ditzakeen argitasunak eta ganorazko azterketa linguistikoa— corpusaren urri eta eskasagatik ere, orduko hizkuntzari buruzko zenbait ondorio atera ahal dira akitanierazko lekukotasunetatik.

## 3. Ondorio linguistikoak

### 3.1. Fonologia

Alor honetan lortzen ditugu ondorio aberats eta ziurrenak: hots inbentarioa askozaz murriztagoa izanik, hotsak hobeto daude ordezkaturata sistema morfologikoaren osagaiak baino: ugariago eta testuinguru gehiagotan.

Akitaniera bezalako corpus batetik ondorio fonologikoak atera ahal izateko, lehenik grafia interpretatu behar dugu, grafia eta hotsak ez baitatoz bat hizkuntza gehienetan eta, hortaz, hotsak zein ziren edo zein ziratekeen asmatu beharko dugu. Idazkera latindarra da, dakigunez, eta jakintzat eman dezakegu grafemek gehienetan latinezko hots berak edo bertsuak irudikatzen zituztela, alegia, ez zutela <p>rekin txistukari bat adierazi nahi, eta abar.

Hala eta guztiz ere, hizkuntza baterako pentsatua den alfabetoa beste hizkuntza bat adierazteko erabiltzen denean nola edo hala egokitu egin beharra dago, sarrienik bien fonologia-sistemak ez baitira bat etorriko. Esan gabe doa, beraz, egokitasun maila handiagoa izango dela zenbat eta bi hizkuntzen fonema inbentarioa bata bestetik hurbilago. Gure kasuan, gainera, ez zen zehazki beste hizkuntza bat idatzi behar, baizik eta latinezko testuinguru batean beste hizkuntza bateko hitzak eta hotsak adierazi behar. Akitaniera idazteko ohiturarik ez zegoenez batere, eta akitanieraren eta latinaren hots inbentarioa erabat berdinak ez bide zirenez, normala baino ez da tarteka eskasiak, kontraesanak eta are akatsak ere egotea.

Agertzen zaizkigun gorabeheren artean azpimarragarrienetako bat latinez ezohikoak ziren grafemak edo ohiz bestela agertzen direnak egotea akitanieraz:

<H>, <TH>

<XS>, <X>                      latinez /ks/ adierazten zuten: cf. *uxsor*

<NN>, <TT>, <CC>

Hiru arrazoi egon daitezke alfabetoa aldatzeko (de Hoz 2009: 423):

1. Erabiltzaileek beharra sentitzea
2. Idazkerari buruzko ardura teorikoa duen klase eskolatu bat garatu izana
3. Beste hizkuntzaren bat transkribatzerakoan agerian diren hutsuneak nabaritzea

Bigarren arrazoia alde batera utzi dezakegulakoan, beste bietan bilatu behar dugu ezohiko grafemak edo ezohiko erabilerak egotea akitanierazko izenetan, alegia, latinari arrotz zitzaizkion hotsak adierazi nahian.

Bokalismoan ez dago ezer aipagarririk: euskara historikoaren bost bokalak baino ez ditugu aurkitzen eta, areago, akitanierazko erroak euskal paraleloak dituztenean

bokalak diren-direnean agertzen dira: *Andere, Asto, Laur, Sembe, Cison, Sahar...* Jadanik ondo dakigunez, hemen berreraiketaren muga gotor batekin egin dugu topo.

Kontsonanteen atalean, aldiz, gertakari aipagarri asko dira. Ikus ditzagun polikiago.

### 3.1.1. *Hasperena*

Hasperena da akitaniar izenen ezaugarri nabarmenena, ugari agertzeaz gainera alboko hizkuntzek (iberiera, zeltera, latina bera) ez baitzeukaten.<sup>25</sup> Oso deigarria da, hain non esan baitaiteke —Mitxelenari inoiz entzun genion bezala— izen batek H badu akitanierazkoa dela.

Euskara historikoan aurkitzen ditugun testuinguru beretan agertzen da akitanieraz:

- Hitz hasieran	HARBELEX
- Bokal artean, maiz berdinen artean	DUNOHORIGIS
- Ozen ondoan	BELHEIORIGIS, ABISUNHAR, BERHAXSIS

Alabaina, euskara historikoan ez bezala, (a) bigarren silabatik aurrera ere ager daiteke, batzuetan oso aurrera, eta (b) ez dago Grassmann-en legerik:<sup>26</sup>

- (a) ABISUNHAR, DUNOHORIGIS, HERAUSCORRITSEHE
- (b) HAHANNI

Herskari hasperendunak ere bazeuden: HONTHARRIS. <th> grafema ez da zalantzazkoa: latinez baziren CH, PH, RH eta TH digrafoak,<sup>27</sup> greziar jatorriko hitzak idazteko erabiliak, zehazki greziar alfabetoko X [k<sup>h</sup>], Φ [p<sup>h</sup>], Ρ (rho) [r] eta Θ [t<sup>h</sup>] grafemak ordezkatzeko, hurrenez hurren.

### 3.1.2. *Ozenak*

Akitanieraz hiru ozenak —sudurkariak, albokariak eta, hitz hasierako salbuespenarekin, dardarkariak— Mitxelenak berreraiki AE-ren ondoko neutraltzeengatik sortu zen erronbo sistemaren arabera banaketan zeudela uste dugu, baina agertu, sudurkariak eta dardarkariak bakarrik agertzen zaizkigu, agian albokarien behar beste adibiderik ez dugulako:

	-NN-		-RR-			
N-	-NN-	∅	-RR	L-	-L-	∅
	-N-		-R-			

Dardarkarietan hauxe dugu:

R zein RR / V — V ERAUSCORRITSE

RR / — # HONTHARR-IS

Euskaraz bezala (cf. *gorra, zorra* vs. *gor, zor*), suposatu behar dugu \*HONTHAR idatziko zutela dardarkari indartsua hitz bukaeran jausiko balitz (cf. halaber BORSUS kodan, euskaraz *zordun*).

<sup>25</sup> Latinak latin klasikoa baino lehenago galdu zuen hasperena, nahiz hitzak <h>z idazten jarraitu; edonola ere, erromantze batek ere ez du horrelakorik gorde. Dena dela, <h>aren balioaren oroimena ez zen galdu, eta Europako beste hizkuntzak alfabeto latindarra erabiltzen hasi zirenean, hasperena izatekotan <h> baliatu zuten, akitanierak bezalaxe.

<sup>26</sup> Kontsonante hasperendun bi egonez gero, lehenengoak hasperena galtzen du (lege hau IE berreraikitze garrantzizkoa izan zen, greziera zaharreko eta sanskritoazko disimilazioan oinarritua).

<sup>27</sup> Digrafoa bi letrez osatutako grafema da: adibidez, gure <ts>, <tz> eta <tx> halakoak dira.

Sudurkarietan banaketa honako hau da:

Hitz hasieran	N	NESCA-, NEURE-
Bokal artean	NN	ENNEBOX, HANNACCO
	N	SENICCO
Hitz bukaeran	NN	BIHOSCINN-IS, ASTOILUNN-O, CISSONBONN-IS, EDUNN-IS

Erreparatu “hitz bukaera” esaten dugunean, akitaniar izenaren bukaeraz ari garela, behin latinezko atzizkia kendu eta gero: “-n# temak” dira. Izan ere, izenak osoki hartzen ditugunean, latinezko atzizkia eta guzti, berriro ere agertzen zaigu NN vs. N bokal arteko oposaketa, baina —eta hau oso garrantzizkoa da— NN guztiak akitaniar izenaren azkenean agertzen dira, eta N guztiak latinezko atzizkiaren hasieran. Izan ere, sarritan (ez beti halere) bokalez amaitzen diren izenak (“tema bokalikoak”) latinezko 3. deklinabidearen arabera daude jokatuta; erreparatu latinezko bi hitzoi, non nominatiboko  $\emptyset$ -ri genitiboko (eta gainerako kasuetako) *n* dagokion:

*homo* (nom), *hominis* (gen)

*basco* (nom), *basconis* (gen)

Hala bada, /N/ vs. /n/ oposaketa fonologikoa <NN> vs. <N> oposaketa grafikoaren bitartez adierazten da:

<NN> bokal artean = /N/	vs. <N> = /n/
HANNACCO	SENICCO
(-n# temak)	(tema bokalikoak)
BIHOSCINN-IS	ANDRECCO-NI
ASTOILUNN-O	BELEXCO-NIS
CISSONBONN-IS	OMBEXO-NIS
EDUNN-IS	

Oposaketa fonologikoa bokal artean bakarrik ageri da grafikoki. Bai silaba bukaeran eta bai hitz bukaeran ere, berriz, /N/ beti <N>-z adierazita aurkituko dugu:

-silaba bukaeran: HONTHARRIS, HAHANTEN

-hitz bukaeran: OXSON

Beste era batera esanda, /N/ bokal artean <NN>-z adierazten zen, baina gainerako testuinguruetan —non oposaketa fonologikorik ez zegoen— <N>-z. Ezin gara harritu, guk gauza bera egiten dugu eta dardarkariarekin: *egur* idazten dugu hitz bukaeran, *egurtu* silaba bukaeran, eta *egurra* bokal artean, beti fonema bera bada ere.

### 3.1.3. Txistukariak

Akitanierazko idazkUNETAN lau grafema agertzen dira nagusiki: <s>, <ss>, <x>, <xs>. Haien banaketak ere erronbo sistema erakusten du:

	-XS-
S-	-XS
	-S-
S-	<u>S</u> EMBETAR, <u>S</u> ENICCO
-S-	CI <u>S</u> ONTEN, SO <u>S</u> ONNIS
-SS-	CI <u>SS</u> ONBONNIS
-XS-/SS-	<u>O</u> XSON, <u>O</u> SSON

-TS-	HERAUSCORRIT <u>SE</u>
-S	BORS <u>S</u> US (nom), HARS <u>I</u> (gen)
-SS	ANDOSS <u>SO</u> (dat), ANDOSSUS (nom) vs. ANDOST <u>EN</u>
-X	ANDOX <u>U</u> S, BELEX <u>CONIS</u> , BIHOX <u>U</u> S

Nola interpretatzen ditugu, bada, grafemok? Lehenik, oposaketa bakarra islatzen dutela uste dugu, alegia, frikaria (S) vs. afrikatua (XS, X, baita bakan agertzen den TS ere). <SS> interpretatzen gaitzagoa da, *Cissonbonnis* adibidean ustez frikaria baita (eus. *gizon*), baina *Osson* adibidean afrikatua (cf. *Oxson* grafia alternatiboa eta eus. *otso*).

Oposaketa silaba bukaeran ere neutraltzen zen, euskara historikoan bezala (cf. *hitz / hizkuntza, hots / hoskide*): cf. ANDOSSO (ziurrenik *Andotso* gaurko grafian) vs. ANDOSTEN (*Andosten* gaurko grafian).

Itxuraz, artikulazio modua (frikaria vs. afrikatua) artikulazio puntua (bizkarkaria vs. apikaria) baino nabariagoa zen haientzat. Dena dela, euskal etimologia duten hitzen arabera (cf. ak. SENI eta eus. *sehi/sein* vs. CISON- eta eus. *gizon*), artikulazio puntuari dagokion oposaketa ere bazatekeen, zeren eta ez baitago arrazoirik orduan bietako bat —/s/ edo /ś/— bakarrik egotekotan gaur /s/ vs. /ś/ egotea azal dezakeenik.

Haguenbach-eko zilarrezko xafletan bestetan ikusten ez genuen <XX> grafema hipermarkatu berria dago, betiere —eta hau oso esanguratsua da— akitaniar erroaren bukaeran, <NN> grafemak-eta bezala indartsua adierazten zuelako seinale:

BANBIXXI  
 OBBELEXXI  
 BAMBIXXUS  
 DOXXI

Alabaina, Rin ibaiko idazkunek badute beste berezitasun bat are azpimarragarriagoa: <X> hitz hasieran agertzen da, lehenago egin dugun erronbo sistemaren araberrako interpretazioak aurreikusiko ez lukeen eran, alegia:

XALINIS  
 XEMBESUS, XEMBUS

*Xembe* eta *Xalinis* Akitanian lehendik ezagunak ziren *Sembe* eta *Salinis* izenen aldaerak baino ez direla agerian da, hau da, adibideok garbi erakusten dute X grafia S-ren aldaera dela eta ez S-rekin oposaketan zegokeen fonema berri bat. Halere, ez dago kokapenari edo testuinguruari egotz dakioken arrazoirik S-/X- aldaerak azaltzeko. Honegatik, Gorrochateguik (2003, 2013: 26-27) proposatu du euskara historikoan bezala akitanieran ere bustidura adierazgarria bizirik zela, eta bustidura hori adierazteko normalean hots afrikatueterako zerabilten <X> grafema bera erabili zutela: alegia, gaur ere *Xembe* eta *Xalinis* idatziko genituzkeenak direla. Hau ezarri eta gero, agian konpon dezakegu gorago gelditu zaigun <SS>rekiko zalantza, baldin eta pentsatzen badugu <SS> ere —<X> bezala— afrikatua adierazteko ez eze, palatala adierazteko ere erabili zela, hots, *Cissonbonnis*-eko <SS> geminatuak aldaera palatalizatua adierazten zuela: gaurko grafian *Gixon*-.

#### 3.1.4. *Berezitasunak*

Aldaera batzuek lehenagoko ikusi ditugunak baino testuinguruaren araberrako neutraltze gehiago zeudela erakusten digute, zehazki (a) txistukari ondoan herskariak

ahoskabetzen zirela eta (b) C ondoren (adibidean ozen ondoren) frikaria/afrikatua oposaketa ere neutraltzen zela:

- (a) BAIGORIXO vs. HERAUSCORRITSEHE (ak. *gorri* > *-korri*; cf. eusk. *gorri* / *Aizkorri*)  
BONBELEX, BONTAR vs. ANDOXPONNI (ak. *bon* > *-spon*; cf. eus. *bazter* / *Izpazter*)  
HARBELEX, BERHAXIS, SENIXSO-NIS vs. [H]ARBELISIS

Halaber, erraz ikusten da sistemak hiru hutsune zituela: \*\*R-rik ez dago hitz hasieran, eta M eta P ez zirela fonemak.

Kontsonante sudurkari ezpainkaria ez dugu akitanieran berreraiki behar, adibide guztiak asimilazioz azal baitaitezke, edo hurrengo ezpainkariarekiko asimilazioz (a) edo hurrengo silabako sudurkariarekiko asimilazioz (b); alor honetan, gainera, ondare zaharreko hitz baten etimologia eskaintzen digute akitaniar lekukotasunek (c):

- (a) OMBE < \**on-be*, SEMBE < \**sen-be*  
(b) BONXUS > MONSUS (cf. \**bini* > \**mini* > *mihi*)  
(c) ak. OMBE vs. Lerga UMME: \**onbe* > \**umbe* (*o* > *u* / — *n*) > \**umme* > eus. *ume*

P ere ez dugu behar, betiere B-ren alofono gisa agertzen baita:

- B- BONBELEX  
-B-HARBELEX  
-P- ANDOXPONNI (*b* > *p* / txistukari —)

*Bon* bezalako zati ezagunetan *b/p* txandakatzea egiaztatzeak bide ematen digu hain ezagunak ez diren beste batzuetan txandakatze bera proposatzeko:

HANNABI vs. HARSPI (< \**hars-bi*)

### 3.1.5. *Herskariak*

Ez dago sekula herskaririk akitaniar izenen bukaeran, kokagune honetaz uste duguna bermaturik, alegia, oso berandu sortuak direla *-t*, *-k* eta *-p*. Gainerakoan, hiru artikulazio puntu ditugu (ezpainkari, horzkari eta belare), eta haiek adierazteko grafema ezberdinak (B, D, T, TT, G, C, CC), interpretatu beharrak direnak.

Ezpainkarien artean, aurreratu bezala, <p> oso urria da eta gehienetan /b/ fonemak txistukari ostean jasandako ahoskabetzea adierazten du (*Cisson-bonnis* vs. *Andosponni*). Galiar izenetan, ordea, /p/ fonema ugaria da eta testuinguru gehienetan lekukotua: *Carpento*, *Eppamaigi*, *Arpenino*, *Sapalonis*... Akitanieraz <p> aldaera markatua inoiz testuinguru libretan ere erabili zen —*Seni-ponnis* kasu—, eta beranduxeago saiatuko gara honi azalpena aurkitzen.

Horzkarietan <t> eta <d> ugaritxo aurkitzen ditugu, hala hitz hasieran nola barruan, eta hala bokal artean nola C ostean:

- T- Talsco-, Tarros, Torste-, Totto-  
-T- Sembetar, Nescato, Baeserte, Hahantenn  
-D- Odanno, Idiatte, Andere, Aldeni, Erditse  
D- Derro, Deri

Azpimarra daitezkeen gertakarien artean lehena litzateke *Hahantenn*-en *n* ondoan *t* agertzea da, ahots asimilaziorik (*t* > *d* / *n* —) ez balego bezala. Halaber, deigarria da *d* hitz hasieran agertzea, AE-rako proposatutako hots aldaketetatik kanpo (\**d* >  $\emptyset$  zein \**d* > *l* / # —). Hauxe dio Gorrochateguik (2013: 25):

Pentsa daiteke aipatu izen horiek ez direla euskal leinukoak, Bähr-ek uste zuen bezala, baina *Andoxs-* eta *Alardos-* izenetan berezi dugun *-dots-* osagaiak artean autonomia balu hizkuntzan, Hagenbach-eko xafletan agertu den *Doxxi* (gen.) izena hitz sinplearen adibidea izan zitekeela onar genezake, Galiako zenbait tokitan antzeko izenak agertu izan arren (*Dosso*, *Dossonius*, etab.).

<tt> eta <th> digrafoak ere agertzen dira:

Lohitton, Totto-

Hontharris

Mitxelenak suposatu zuen <tt> geminatua herskari bortitza adierazteko erabili zela, eta <th> grafema, fonema bera adierazi arren, testuinguru berezietan —batez ere azentuaren eraginez— sortzen zen alofono hasperenduna markatzeko. Arrazoi berak azalduko lituzke haren ustez *Talsco-* : *Halsco* aldaerak, bigarrena lehenengoaren garapen erregularra dela suposatuz:

táls- > \*tháls- > háls-

Era berean azaldu zituen euskara historikoko *-ar/-tar* atzizkiaren aldaerak, ondoko kidetasunak ezarriz:

-THAR > \*-har > -ar (dakigunez, noizbait *h* >  $\emptyset$  bigarren silabatik aurrera)

-TAR > -tar

Belareetan <g> dugu hitz hasieran (*Gerexso*) zein barruan (*Erge*, *Ilurgorri*, *Baigorri*). <c> berriz ia hitz barruan baino ez dugu (*Nescato*), <cc>rekin lehian: azken hau, adibidez, txikigarritzat jo dugun *-ko* atzizkian dugu (*Atta-co*, *Ombe-cco*). Deigarria da *Gison-donni*-ren ondoan *Cison-* egotea hiru aldiz, eta *-gorri*-ren ondoan *-corri* ere egotea ahoskabetzea azaldu ezin duen testuinguru batean (*Bai-gorixo*, *Bai-coriso*, *Bai-corrixo*). Badirudi hau akitanierazko herskariaren izaerari egotzi beharko zaiola. Mitxelenaren hipotesiaren arabera, akitanieraren herskariak batzuk indartsuak eta beste batzuk ahulak ziren, printzipioz latinezko ahoskabe eta ahostunekin parekatzen zirenak, baina bortitzen indarra latinezko ahoskabe arruntena baino handiagoa zenez, askotan geminatuen bitartez idazten ziren (*-tto*, *-tten*, *-cco* atzizkietan, adibidez). Silaba azentudunetako herskariak bestetakoek baino indar gehiago zutenenez, normala baino ez da herskari ahula hitz hasieran edo atzizki azentudunaren hasieran apur bat indartzea eta latinezko ahoskabeak idazteko erabiltzen ziren C edo P letren bitartez idatzi izana; honek azalduko lituzke ez *Cison-* bakarrik, baita goian aipatu dugun (*Seni-*)*ponnis* hura ere. Hots, Martineten notazioa erabiliz hauxe genuke: /k<sub>o</sub>ís-/ eta /p<sub>o</sub>ón/, non bi herskariak ahulak izanik kokagune indartsu batean goxo ahoskatuko ziren.

Orain artekoa laburbildurik, honako egokitasun taula hau genuke:

		ezpainkariak	horzkariak	belareak
indartsua	kokagune indartsuan	—	th, t	—
	kokagune ahulean	—	tt, t	cc, c
ahulak	kokagune indartsuan	b, p	d	g, c
	kokagune ahulean	b	d	g

### 3.1.6. Akitaniera AEB eta Erdi Aroko euskararen artean

Akitanierazko izenen arabera, AEB-ko kontsonanteen arteko indartsu/ahul oposaketa bizirik zegoen, baina dagoeneko garatua zen erronbo sistema: hots, hitz

hasieran ahulak baino ez genituzke topatuko (grafiak argiak ez izan arren), eta bukaeran indartsuak baino ez (eta hemen grafiak argiak dira sudurkari eta txistukarietan).

Beraz, esan daiteke akitaniera AEB eta Erdi Aroko euskararen artean kokatutako garaia dela. Erdi Aroko euskararekin badu ezberdintasun nabarmen bat: elkarterorrietan gertatuko ziren hots-aldaketa larriak ez dira oraindik gertatu. Adibidez, Erdi Aroan  $e > a$  aldaketa gertatuko bazen ere, ez dago horren arrastorik akitanieran:

ak. Ander <u>e</u> ni	EA And(e) <u>r</u> ani <sup>28</sup>
ak. Be <u>l</u> ex	EA Bel <u>a</u> co, Bel <u>a</u> za

### 3.1.7. Akitanieraren aldaerak

Harrigarria litzateke hain eremu zabalean hitz egiten zen hizkuntza izanik, akitaniera non-nahi bat izatea. Egia da gure lekukotasunak oso urriak direla, baina, hala eta guztiz ere, denborari (gogoratu hiru mendeko lekukotasunez ari garela) edota espazioari (Garonatik Ebroraino) egotz dakizkiokeen hiru aldaera proposatu dira.

Lehenengoa ezagutzen dugu: *Talsconis* (Ciotat, Eauze, Gers) vs. *Halsconis* (Cazaril-Laspènes, Valcabrère). Mitxelenaren interpretazioa aintzat harturik, Akitaniako bertako aldaerak lirateke.

Bigarren adibide taldeak akitaniarren eta baskoien dialektoetan ezberdintasunak izan zirela iradokitzen du. Alde batetik, *Ombe* (ak.) vs. *Umme* (bask.) konparaturik, esan dezakegu baskoiek zeukatela forma bietan garatuena (*ombe* > *\*umbe* > *umme*). Bestetik, *Onso* (giz.) eta *Onse* (emak.) Soriako izenek ak. *Ombe*- oinarrian isola daitekeen *\*on* erroa gogoratzen dute, baina ak. *Bonxso*- da osagaien aldetik formarik hurbilena: bigarren aukera hobestekotan, *Bon* (ak.) vs. *On* (bask.) genuke: *\*bon* > *\*on* aldaketa, alegia, bokal borobil baten aurrean ezpainkaria desagertzea arruntzat jo beharko litzateke edozein hizkuntzatan.

## 3.2. Gramatika

Alor honetan ondorioak oso mugatuak dira ezinbestean. Pertsona eta jainko-izenak baino ez direnez, eta idazkunak latinez daudenez, ez dugu aditzik —jokaturik ez, behinik behin—, ez perpausik, jakina, eta izen morfologiaz ere hamaika galdera erantzun gabe gelditzen dira: adibidez, deklinabideren bat ote zegoen?

Izen bereziei dagozkien xehetasun batzuk baino ezin ditugu inferitu, beraz, gure corpusetik, zehazki elkarbideari, eratorbideari, zenbait hitzen gramatika-kategoriari eta hitz ordenari dagozkienak.

Nolabaiteko hitz elkarketa ageri da, baina galierazko eta iberierazko onomastikarekin konparatuta, oso urria: gogoratu gal. *Dunorix* ‘gaztelu-erregea’ bezalakoak. Izen elkartuak gutxi dira, bada, eta gehienak jainko izenetan agertzen dira: 50 jainko izenetan 15 inguru dira konposatuak: ]*m-berri*, *Aher-bels-te*, *Alar-doss-*, *Andoss-*, *Ars-ilunn-*, *Asto-ilunn-*, *B(u)ai-gori-*, *E-berri*, *Ede-lati*, *Heraus-corri-*, *Horo-lati*, *Ilun-ber*[, *Ilur-berri-*, [*I*]lur-gorr[. Osagai hauetako batzuk izen bakunetan ere ageri dira, hala nola *Alar*, *Bels-* (*Belex*-en aldaeratzat harturik), *Ilunn-*, *Heraus-* eta *Iluro*, baina beste batzuk soilik elkartuaren bigarren osagai gisa, hala nola *-berri*, *-gorri* eta *-lati* (azken hau akitaniartzat jotzen bada). Hitz elkartuetan duten tokia eta euskal kideek eman dezaketen informazioa kontuan harturik, oinak izen edo izenondoak bide dira: *Aher-*, *Alar-*, *Ars-*, *Asto-*, *Heraus-* izenak badira, beti bigarren tokian agertzen diren *-berri*, *-gorri* eta *-bels* osagaiek izenondoak izateko aukera handia dute.

<sup>28</sup> *Anderani* bere horretan Erdi Aroan gehien lekukotzen diren izenetako bat da (Peterson xxxx).



Pertsona izenetako hitz elkartuak, aldiz, oso gutxi izateaz gain, bi osagaien bitartez eginak dira guztiak, *-belex* eta *-bon-ez*: *Bon-belex*, *Bon-silex*, *Har-belex*, *Gisson-bonn* eta *Seni-ponn*.

Bigarren osagaietako batzuk (*berri*, *gorri*, *belex*, *bon*) izenondoak izan badaitezke, eta euskara historikoarekin egin daitezkeen loturak ere horren alde datoz (*berri*, *gorri*, *beltz* eta agian *on*), nabarmentzekoa da izen elkartuok [+IzAdj] hitz ordena erakutsiko luketela, euskara historikoan bezalaxe. Nabarmentzekoa da, halaber, koloreak adierazteko izenondoak izatekotan —lehenago ikusi dugunez (cf. 5. kapituluak)— *gorri* eta *beltz* direla izango dituzun hiruretako bi, akitanierazko corpusean lekukotua ez den *zuri*-rekin batera.

Eratorbidean, hiru irizpide ditugu hurren aipatuko ditudan ahaz den besteko ziurtasunez atzizkitzat jotzeko: agerpen maiztasuna, euskara historikoko atzizki batzuekin duten kidetasun formala eta, kidetasun hori aintzat emanda, izen berezietan agertzeko moduko atzizkiak izatea, hots, lautan hiru txikigarri (*-cco*, *-tto* eta *-xso*) eta laugarrena (*-tar/-thar*) jatorriarekin (famiariarekin? tribuarekin?) lotutakoa.

Ziurrena *-cco* dukegu: eus. *-ko* txikigarria egun fosilduta dago ipuinetan (*Otsoko*, *Astoko*), baina akitanieraz bizi-bizirik zegoela pentsa dezakegu adibide ugaritasunaren arabera:

*Andre-cco*, *Atta-cco*, *Belex-co*, *Hana-co*, *Laur-co*, *Mati-co*, *Ombe-cco*, *Sembe-cco*, *Silex-co*, *Siri-cco*, *Tals-co*

*-tto* eta *-xso* eus. *-to* eta *-txo* txikigarriekin lot daitezke. Isolatzen errazena *-tto* da:

*Andos-to*, *Lohi-tto*, *Nesca-to* eta, jainko-izenetan, *Alardos-to*

Berriz, *-xso-* bi modutara egokitu zaio latin deklinabideari:

*-xsus* (nom), *-xsi* (gen), *-xso* (dat): *Bon-xus*, *Bon-xi*, *Hanna-xus*, *Lohi-xsi*, *Uloho-xo*. Ozen ondoren *-so* aldaera ageri da: *Narhon-sus*, *Mon-sus*, eta agian *Har-si*.

*-xso(n)-*: *Andere-xo*, *Andere-xso*, *Bon-xso*, *Erhe-xo*, *Ombe-xo*, *Sembe-xo*, *Sembe-xso*, *Seni-xso*. Jainko-izenetan ere bada: *Baicorri-xo*, *Ilurberri-xo* eta ziur aski *Ari-xo* eta *Ili-xo*. Zenbaitetan *-so* aldaera: *Hauten-so* (dat), eta beharbada *Harau-so* eta *Harou-so* jainko-izenak.

Laugarrenak bi ezaugarri aipatzekoak ditu: batetik, eus. *-tar*-ekin duen kidetasuna; bestetik, iberieran ere *-tar* edo *-ar* atzizki bat isolatu uste dutela. Edonola ere, ugaritxo dago gure corpusean:

*Bihotarris* (gen), *Bon-tar*, *Halsco-tarris* (gen), *Haron-tarris* (gen), *Hotarris* (gen), *Hotarri* (dat), *Orco-tarris* (gen), *Sembe-tar*. *-thar(r)-* aldaera: *Baisothar* (gen) eta *Hontharris* (gen).

Honainokoak ez dira isola daitezkeen atzizki bakarrak. Gorrochateguik (2013: 20-21) bildutakoetan hona batzuk: *-bo*, *-ginn/-cinn*, *-osso*, *-tenn* eta emakume izenetan bakarrik ageri den *-eia*.

*Iar-bo-nis* (gen), *Sontra-bo-nis* (gen)

*Bihos-cinn-is* (gen), *Torste-ginn-o* (dat)

*Andossus*, *Ilunn-osi* (gen), *Bai-osi* (jainko-iz), *Alard-ossi* (jainko-iz), *Bort-ossi* (gen), *Condann-ossi* (gen), *Od-ossi* (gen), *Od-oxo* (dat).

*Acca-ten*, *Bon-ten*, *Cison-ten*, *Hahan-ten*, *Haute-ten*, *Seni-tennis* (gen), *Andos-ten*, *Andos-tenno* (dat).

*Belex-eia*, *Lex-eia*, *Tals-eiae* (dat.), *Laur-eia*

Arestian Ariztimuñok (2011) Erro Monosilabikoaren Teoriaren (EMT) argitan azaltzeko saio bat egin du. Bere lanean oso ondo ikusten da hain material urritik

abiatuta beste oinarririk gabe ariketa zaila dela. Adibidez, *Aherbelste* jainko-izena hartuta, hauek dira haren proposamen ugariak:

\*han-ger > \*(h)aker > aher  
\*han-ger > \*haner > \*hahe > aher  
\*ha-ner > \*hahe > aher  
\*bel-tz-e  
\*bel-s-te

Ariztimuñok Lakarrak proposatu bi erro zahar (\**han* ‘animalia (mota)’ eta \**ger* ‘gaiztoa, bihurria’; lehenengorako cf. *han-di*, \**han-hun-tz* > *ahuntz*, \**han-bor* > *hamar* etimologiak) erabili ditu lehen zatia (*aher-*) azaltzeko, haien bi bilakabide ezberdin irudikatuz, eta hots-aldaketa arau hutsetan oinarritu da horien ordezkotzat hirugarren proposamen bat egiteko. Bigarren zatia idazkunaren interpretazio zuzenaren baitan dago: dagoen-dagoenean, *Belex* akitaniar izen ezaguna sinkopaturik genuke (\**beletz* > *beltz* hipotesia onartuz), eta *-te* atzizki horiturik; <ST> grafia /ts/ balitz —idazkun galarrarekin ez omen da ezohikoa—, baliteke azken *-e* hori latinezko datibo markaren (*-i*) bertako aldaera izatea, hots, ak. *beltz* + lat. *-e*.

Oro har, Ariztimuñoren lanaren irakurketatik atera daitekeen den ondorio nagusietako bat da akitanierazko izenak lekutan daudela AEZetik, eta ez dela erraza EMTra erakartzea, konplexu xamarrek direlako haietako asko eta osatu bide zituzten CVC erro zaharrak ez ditugulako beti ezagutzen euskara historikoaren bitartez.

Ariketa hori egin egin beharrekoa zen eta da, dena dela. Alde batetik, badirudi erreduplikazio zaharren adibideak ditugula izen akitaniarretan, bat ezaguna (*zezen*) eta beste hirurak berriak:

SESENCO (gaur *zezenko* ‘zezentxoa’)  
SOSONNIS, ak. *SosoN* < \**so-son* edo \**zo-zon*  
HAHANI, HAHANTEN < \**ha-han* edo  
HEHELPIS < \**he-hel* edo

Irakurketa horrek iradokita, \**sen* erroaren familia aztertuz gero, bi erro geruza antzeman ditzakegu akitanierazko izenetan (Urgell 2016):

– A geruza (zaharrena)	
CVC-CVC	SENTAR, SENPER
CVC-CV	SEMBE
CVC-V	SENI
– B geruza (berriena)	
CVCV-CVC	SENIPONN-IS, SENITENN-IS
CVCV-CV	SENICCO, SENIXSO
CVCCV-CVC	SEMBEDONN-IS
CVCV-CVC	SENIPONNIS
CVCCV-CVC	SEMBEDONNIS

Geruza zaharrean \**sen* CVC erroari beste erro bat (-CVC) edo atzizki bat (-CV, -V) erantsen zitzaion, baina eratorri horietako bi behintzat (*seni*, *sembe*) lexikalizatuak aurkitzen ditugu geruza berrienean: jadanik erro beregainak izanik, eurak dira elkartzen edo eratortzen direnak. Bestela esanda, jatorriz CVC-V [erroa + atzizkia] zatekeen *seni* jadanik lexikalizatu da, eta CVCV-CVC [erroa + erroa] elkartuak egiteko gauza bihurtu da (cf. *Seniponnis* < \**seni* + *boN*), eta berdin jatorriz CVC-CV [erroa + atzizkia] zatekeen *sembe* (cf. *Sembedonnis* < \**sembe* + *doN*). Honek esan nahi du akitanierazko izenek lekukotzen duten hizkuntz egoeran bisilabismoa finkatu xamartuta zegoela, noski, AEBrako Mitxelenak proposatutakoaren ildotik.

### 3.3. Akitanierazko izenen iraupena

Mendebaldeko Euskal Herrian, zehazki Araban eta Bizkaian, Erdi Aroko “garai ilunean”, hots, VI-XI. mendeen arteko hilarriak eta oroitarriak agertu dira (Azkarate & Garcia Camino 1996). Haietan diren 40 antroponimoetatik batzuk akitanierazko izenen kidekoak dira:

And(e)ran(i), Aostarri, Belaco, Hobeconi...

Honek adierazten du akitaniar izenen iraunkortasun bizia. Hau hein batean harrigarria da, bai baitakigu akitaniar garaian ere akitaniarrek izen galiarrak eta latindarrak ere erabiltzen zituztela, eta Hegoaldekoek ere izen zeltak eta latindarrak. Balirudike, beraz, mendeak aurrera joan ahala izen akitaniarrek galduz joan beharko zuketela. Hala ere, Gorrochateguik (2013: 34) erakutsi du izen boladak ez zirela linealak izan. Narbonaldean Inperioaren hasieran bat-batean izen iberiarrak desagertu ziren galiarren mesedetan, baina, akitanierak ere galieraren eragina eta presioa jasan arren, ez zuten lehia hartan atzera egin. Izan ere, lekukotasunetan ikusten da gurasoek, nahiz batzuek izen latindarrak edota galiarrak izan, seme-alabei izen akitaniarrek ipintzen zizkietela:

gurasoak (latindarrak)	gurasoak (galiarrak)	gurasoak (akitaniarrek)	seme-alabak (akitaniarrek)
Annius (aita) Calva (ama)	Dunohoxis (aitaren familia izena, <i>-oho-</i> ahoskera akitaniarrekin bada ere)		Andere (alaba)
	Condannossus (aita)		Anderexo (alaba)

Saint-Bertrand-de-Comminges-ko beste harri batean *Silex* izen akitaniarreko emakume batek akitaniar izenak eman zizkien bere lau semeei (*Odox(us)*, *Lohitton*, *Andosten* eta *Andossus*), bere aitaren izena galiar ondarekoa bazen ere (*Eppamaigi f.*).

Hagenbach-eko xafletan aipatuak diren 29 pertsonetatik hamahiruk (%45ak) ez beren izenak, ezta beren aitarenak adierazteko ez dute latindar izenik erabili; izen galiarrak ere urriak dira: nabarmenki izen gehienak akitaniarrek dira. Xaflak K.o. 270. urtea baino lehenagokoak izanik, honek esan nahi du Saint-Bertrand-etik ez urrun III. mendearen erdialdean akitaniera indartsu bizi zela zilarrezko xaflak eskaintzeko gai zirenen artean (Gorrotxategi 2003).

Akitaniar izenen iraupenak Erromako Inperioagatik ere gogora dakarkit behinola Mitxelenak esana, alegia, euskararen egiazko misterioa ez dela haren jatorria, haren iraupena baizik.

### Bibliografia osagarria

- Abaitua, Joseba & Mikel Unzueta, 2011, “Ponderación bibliográfica en historiografía lingüística. El caso de la *vasconización tardía*”, *BIBLID* 26: 5-26 <<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/literatura/26/26005026.pdf>>.
- Ariztimuño, Borja, 2011, *Antzinateko euskal idazkunak eta aitzineuskararen berreraiketa: corpora, analisis eta ondorioak*. Gasteiz: UPV/EHUko MALa.
- Caro Baroja, Julio, 1971, *Emografía histórica de Navarra*, Iruñea.
- de Hoz, J., 2001 [1999], “Algunas reflexiones sobre fronteras étnicas y lingüísticas”. L. Berrocal-Rangel & P. Gardes, *Entre Celtas e Iberos. Las poblaciones protohistóricas de las Galias e Hispania*, Madril: 77-88.

- Gorrochategui, Joaquín, 1987, “Vasco-céltica”, *ASJU* 21-3: 951-960.
- , 2003, “Las placas votivas de plata de origen aquitano halladas en Hagenbach (Renania-Palatinado, Alemania)”, *Aquitania* 19: 25-47.
- , 2007, “Onomástica de origen vasco-aquitano en Hispania y el Imperio Romano”. M. Mayer et al., *Las provincias del Imperio Romano a través de su epigrafía (Barcelona 2002/IX/3-8)*, Barcelona: Institut d'Estudis Catalans, etab., 629-634.
- , 2015, “Las lenguas de Álava y alrededores en la antigüedad”, *Arabako hizkuntzak eta hiztunak mundu eleanitzean: jardunaldiak, 2014ko abenduaren 17 eta 18an* Gasteiz: Arabako Foru Aldundia.
- Mitxelena, K., 1982, “Sobre la lengua vasca en Álava durante la Edad Media”, *Vitoria en la Edad Media*, Gasteiz: Gasteizko Udala: 297-306 [OCC V: 403-418].
- Pozo Flores, Mikel, 2016, *Vasconia y los vascones de la crisis del Imperio romano a la llegada del Islam (siglos V-VIII). Evolución sociopolítica y génesis de la gens effera*. Gasteiz: UPV/EHUko tesia.
- Silgo, Luis, 2009, “La antroponimia ibérica de la *Turma Salluitana*”, *Revista portuguesa de Arqueología* 12-2: 139-155.
- Zaldua, Luis Mari, 2016, “Sobre el elemento indoeuropeo pre-latino en la toponimia de Vasconia: los nombres de lugares terminados en *-ama*”, *FLV* 121: 185-233.